



Itsasondoarrak Aralarren

Elkarrizketa: Mirari Gaztañaga
Agenda 21: 2014. urtean parte-hartze prozesuak
Ibilbidea: Ormaiztegi - Zelaundieta - Ormaiztegi



Eta beste behin, konturatu gabe, turroi eta polboreiez gainezka gaude, 2014. urteari egindako oker guztiak berarekin eraman ditzala otoi eskatuz eta 2015. urteari eskari zerrenda luze batez ongi etorria eginez. Baina, ez dezagun gure burua engainatu, urteen joan-etorriak ez du bere baitan horrelako miraririk gauzatzen. Hau da, gure bizitzan eta gure herrian gauzak arrosa kolorekoak izatea nahi badugu, has gaitezen lanean, inork ez baitigu ezer oparituko.

Lanerako gogoia eta asmoa duenak aukerak barra-barra topatuko ditu. Itsasondo herri txikia izanik, kultur ekintzaz, ekintza sozialez, auzolanez eta abarrez lepo daukagu. Ale honetako hemeroteka bistaratzea baino ez dago horretaz ohartzeko.

Itsasondo 2.0 aldizkariaren 27. alea aurkezteko unea iritsi da. Beste behin ere, edukiz gainezka datorkigu. Ongietorria Mikel Mendizabalen errima finak egiten digu, eta gai serioetara igaroz, udaleko berrietan udaleko bizitzaren errepasoa egiten digu: laguntzak, lanak, gastuak, erabakiak e.a. zehatz-mehatz azalduz. Txikiak ez dira makalak gure herrian, eta haurreskolak, eskolak eta guraso elkarteak egiten dituzten ekintza ugarien berri duzue hemen. Elkarrizketaren txokoan, Mirari Gaztañagak itsasondorrek munduan zehar egindako joan-etorri eta proiektuez hitz egiten digu. Eta zer esan Itsasondoko jubilatuez; hauek ere ez dira makalak gero, ekintza ugari antolatuta dituzte, eta aurrera begirako proiektu eta asmoak ere ugariak dira; ilusioa gainezka dutenik inork ezingo digu ukatu. Hemeroteka txokoan, aldiz, hitzaldiak, gaztaina jana, kantu afaria, antzerkia, talo festa, euskararen eguna eta gehiago; denei txoko bat egitea ere kosta egiten da. Informatika txokoak, lorezaintzak eta errezetak ere ez dute huts egin ale honetan. Itsasondo 2.0 aldizkariaren 27. ale hau xumeki herritar eta lagun askoren ahaleginari esker egin digu, eta beste behin, zure etxeko buzoian duzu; zure gustukoa izatea espero dugu.

Eta aurrera begira jarrita, gure asmoa da Itsasondon eta Euskal Herrian jasotako gertaerak gertutik jarraitzea. Urte interesgarria dirudi 2015. honek. Ea beregan jarritako esperantzak betetzeko gai garen. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Haurreskola**
- 06. **Eskola:** Jolasa
- 07. **Gazte asanblada:** Azaroaren 25a
- 08-09. **Gazteria**
- 10-13. **Elkarrizketa:** Mirari Gaztañaga
- 14. **Gizarte ongizatea:** Genero indarkeria
- 15. **Jubilatuak**
- 16-19. **Agenda 21:** 2014. urtean parte-hartze prozesua
- 20. **Aranzadi:** Sugeak
- 21. **Kale inkesta**
- 22-23. **Ibilbidea:** Ormaiztegi-Zelaundieta-Ormaiztegi
- 24. **Informatika:** Windows
- 25-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa / euskararen atala**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Zeruko izar argitsuena*

Munduan zehar zeresan frango du Mirari Gaztañagak ta Aranzadiak sugeei buruz argi ditu begiradak, Kutzabank kontuz, Kuxkuxtu kantuz boladak eta baladak taloak errez, gaztainak janez afalosteko algarak..

Udaletxean gaurko berriak, hemerotekan lehengoak euskerak bere eguna eta tratu txarrei ordagoak, gazterien ekimenari luza zaizkio hegoak, bizikletaren gainean doaz muga gabeko gogoak.

Udal erabakiak

Ordenantza fiskalak aldatzea

Urriaren 27an egindako batzarrean, datorren urtean udalak kobratuko dituen tasa eta zergen tarifak izango dituen aldaketak erabaki ziren. Igoerak erabakitzerakoan, aurreko urteko BGIaren igoera txikia izan dela ikusirik, aldaketa bakarrik zabor eta ur tasetan egitea erabaki da. Zaborra %8 igoko da, eta ura %5. Bi zerbitzu horiek defizitarioak dira, eta defizita kontrolatzea da udalaren asmoa; eta udalak aipatutako tasei dagozkien zerbitzuak pres-tatzeagatik ordaindu beharko dituen igoera bera aplikatuko da.

Gainontzeko tasa eta zergak aldaketarik gabe mantenduko dira. ■

Beste erabaki batzuk

- Ibaiondo industrial egurra birziklatzeko jarduera jartzeko eskaera tramitatu da, Eusko Jaurlaritzak dagokion txostena eman dezan.
- Wifi sarearen erabilera arautuko duen araudia onartu da.
- Obra txikiak egiteko jasotako baimenak onartu dira. Guztira zazpi izan dira.
- Obra handiak atalean, bi eskaera izan dira eta biak onartu dira.
- Makrobiotika ikastaroa Jubilatu elkartearen emateko baimena.
- Ekaineko fakturen zerrenda onartzea 54.142,02€ zenbatekoarekin.
- Uztaileko fakturen zerrenda onartzea 23.400,21€ zenbatekoarekin.
- Abuztuko fakturen zerrenda onartzea 5.686,51€ zenbatekoarekin.
- Irailako fakturen zerrenda onartzea 28.494,62€ zenbatekoarekin.
- Maddi Alberdiri uztailaren 7an Jubilatu elkartearen udaleku irekietako sukaldaritza tailerra egiteko baimena ematea.
- Itsaso Urretagoienari amatasun eszedentzia onartzea.
- Goierriko Hitzari 2014. urteko aurrekontuan 1.800 euroko laguntza eta 600 euroko 10 harpidetzaren laguntza ematea.
- Alkatea oporretan dagoen bitartean, bere eskumenak beste zinegotzien gain eskuordetzea.
- Hirigintza arau-hausteen bi espediente tramitean jartzea.
- Hilerriko zenbait likidazio onartzea.
- Ermintza Elkarteari 2014 ehizaldiko zozketak Ibaiondo industrialdeko pabe-loian egiteko baimena ematea.
- Ainara Urteaga udal langileari lan jardunaldia aldatzeko baimena ematea.
- Arbelaitz elkarteari pintxo poteoa egiteko txosna jartzeko baimena.
- Jasogailuen mantenimendurako Orona enpresarekin kontratu berria egitea.
- Herriko jaietan tiro pitxoi /uso-tiro barraka bat jartzeko baimena ematea.
- Herriko jaietan bi txosna jartzeko baimena ematea.
- Espainiar banderaren auzian emandako sententzia betetzeko erabakia hartzea.
- Mertxe Orte gizarte langileari bere kontratuaren dedikazioa handitzea.
- Udal artxiboan zenbait datu aztertzeko baimena ematea Aranzadiren izenean Joxe Alberto Zurutzari.
- 2014ko zaborra, 3. hiruhilabeteko ur errolda, estolderia eta aparkamenduko 2. seiuhilabeteko erroldak onartu eta ko-brantzan jarri dira. ■

Moziok

Konstituzio auzitegiak Kataluniako kontsulta behin-behinekoz bertan behera uzteko hartutako erabakia dela eta, Bildu taldeak aurkeztutako moziua onartu da urriaren 13an egindako udal batzarrean.

Diru-laguntzak

Azken hiruhilabetean honako diru-laguntzak tramitatu dira erakunde desberdinetan.

Eskatu direnak:

Natura ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduera gauzatzeko diru-laguntza eskatu da. Aurkeztutako proiektua Murumendiko Natura Intereseko eremuaren kontserbazioa da, eta aurrekontua 46.490 euro.

Lortutako laguntzak

Foru Aldundiak Lurralde orekaren helburua mantentzeko inbertsioak gauzatzeko lanetarako 28.000 euroko laguntza eman du. Laguntza hau Nautiko aurreko urbanizazio obrak, San Juango Saneamentu obrak eta Urkiko frontoiko ur filtrazio arazoak konpontzeko erabiliko da. Obra hauen guztien aurrekontua 36.153 euro da.

Liburutegiko funtsak berritzeko eta irakurketa sustatzeko laguntza lortu da; guztira, 1.180 euro.

Bake Epaitegiko funtzionamendu gastuetarako 750 euroko laguntza jaso da.

Itsasondoko Anbulategiko funtzionamendu gastuetarako 6.772 euro.

Jaurlaritzak Urkiako PF-GI 54 ibilbidea egokitzeke 493 euroko laguntza eman du. ■



Makrobiotika ikastaroa jubilatu elkartearen.



Urkiye Haurreskola deskubritzeko ordua iritsi da!



Kaixo, lagunak!

Aurreko aldizkarietako gaiarekin (haurren autonomia) jarraituz, guk haurreskolan erabiltzen ditugun errekursoak eta elementuak azalduko dizkizuegu. Horretarako, oso garrantzitsua da gelako espazioa eta materiala antolatzea. Alde batetik, espazioa. Guk gela txoko desberdinetan dugu antolatua, eta txoko bakoitzean haurren arloren bat lantzen da. Horrez gain, espazioa eta materialak haurren eskura eta neurrira daudela egokituak gogoratu behar da. Hauek ditugu gure txokoak:

Lasai txokoa: *haurrak lasaitasuna behar duenean goxo-goxo egoteko aukera ematen dio. Haurrek nekea sentitzen dutenean bertara hurbiltzen dira etzatera edo liburu bat irakurtzera.*



Esperimentazio txokoa: *adin hauetan, trasbaseak egitea oso garrantzitsua dute, eta txoko honek aukera handia ematen die horretarako, baita eskuak lantzeko eta hainbat zapore dastatzeko ere.*

Joku heuristiko txokoa: *txoko honetan funtzio desberdinak betetzen dituen materiala dago. Hemen, haurrak irudimena asko lantzen du, forma eta irudi mugagabeko materiala baitago.*





Txoko aereo: bertan txirrista, eskailera... daude, eta beraien kabuz mugimendua lantzeko aukera ematen die.
Sinboloko txokoa: hau handienentzako prestatuta dago, gizartearen dauden rola imitatzen hasten direnerako (sukaldea, panpinak...).

Material desberdineko txokoa: kaxa batean, hainbat material jarri eta sarritan aldatzen duguna. Adibidez, egunkariak, estropajoak, albal papera, arrautza kaxak... testura desberdinetako materiala lantzeko.



Koltxoneta txokoa: hemen txikiak egoten dira, lurrekin kontaktua izateko eta hortara ohitzea, eta beraien lehen mugimenduak lantzeko. Haur txikiak lau hankan hasteko eman behar dituen pausoak koltxoneta honetan hasiko dira, eta prest direnean, gela konstatzen hasiko dira. Bertan, adinari dagokion materiala dago beren eskura.

Psikomotrizitate gela: haurrak bere osotasunean, bere arlo guztiak lantzeko aukera ematen dion tokia da; fisikoa, emozionala zein psikologikoa.



Parkea: mugimendu askea lantzeko espazioa da, baina horrez gain, naturak eskaintzen dituen elementuak aztertzeko txokoa ere bada.

**Haxe da, bada, gure haurreskola!
 Zatoz ikustera, ateak zabalik dituzu eta!
 Edo bestela, deitu 943 164831 telefonora
 eta jarri gurekin harremanetan. ■**

Jolasa

Naturari so egiten badiogu, konturatuko gara jolasa gizakion ezaugarri bat izateaz gain, animaliena ere badela. Hala ere, ezagun da, espeziea zenbat eta eboluzionatuagoa izan, jolasak gero eta konplexuagoak eta iraupen luzeagokoak direla.

Beraz, pertsonak gara, hain zuzen ere, jokorik konplexuenetan aritzen garenok, eta haurtzaroan ez ezik (nahiz eta gehien jolasten den aldia izan) bizitzaren gainerako aldietan ere jolasean ibiltzen gara.

Psikologoak eta pedagogoak ados daude gai honetan: **haurtzaroan ekintzarik garrantzitsuena jolasa da.** Umeak jolasean dabil-tzan bitartean, batetik, beraien bizitzaren sentimenduak islatzen dira – emozioa, alaitasuna, kuriositatea...–; eta, bestetik, ekintzak berak eragin izugarria dauka umearen garapenaren esparru guz-tietan, psiko-motorean, mentalean, afektiboan eta sozialean.

Beraz, GOAZEN JOLASTERA!

Debekatua ez dena derrigortua da, eta derrigortua ez dena debekatua, guk egindako munduan. Jolastea debekatzen duen munduan. Bilboko parke batean, Amets Arzallusek honakoa irakurri zuen: "Prohibido Jugar".

Jolastea da...

I

Jolastea da eskutik heldu ta hankak paseatzea, jolastea da pareta hizkitan irakurtzen saiatzea, jolastea da ziba askatu ta zeba ahoskatzea... Noren ideia izan da ama jolasa debekatzea?

II

Jolastea da zilipurdika lurra kordea galtzea, jolastea da adar batetik hankak zintzilikatzea, jolastea da pixerreketan parkeak nabigatzea... Ta kremaillera trabatu bat da jolasa debekatzea.

III

Jolastea da denbora-pasa ordularia galtzea, jolastea da enbor batean zirkuluak kontatzea, jolastea da kabira igo eta kuku kantatzea... Ta masailan hatz marka bat da jolasa debekatzea.

IV


Jolastea da oherakoan ilargia itzaltzea, jolastea da pijama jantzi ta ametsak esnatzea, jolastea da kontrabentanan opari bat zabaltea, ta egusenti lapurtu bat da jolasa debekatzea.

V

Jolastea da kulunpioa, jolastea ohatzea, jolastea da olatutxoa, jolastea baratzea, jolastea da umetokia, jolastea da etxea... Adin txikiko kartzela bat da jolasa debekatzea.

VI

Jolastea da zuhaitz atzean mundutik ezkutatzea, jolastea da zapiarekin betiko eskapatzea... Eta orduan zer da benetan jolasa debekatzea? Zebra bidean agurrik gabe haur bat abandonatzea.



Haurreskolak argazki erakusketa jarriko du ludotekan

Urkiye haurreskolan egiten duten lana ezagutarazi nahian, eta Haurren Herria ekime-naren filosofia kontuan hartuta, beraien egunerokotasuna herrian zabaldu nahi dute. Horretarako, argazki erakusketa antolatu dute, eta hainbat argazki izango dira ikusgai. Erakusketa abenduaren 22tik urtarrilaren 12ra arte egongo da ludotekan.

Azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

Pasa den azaroaren 25ean izan zen emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna. Berdintasuna aldarrikatze aldera, urteak dira emakumeenganako indarkeria gaitzesteko egun hau antolatzen dela.



Lehen aldiz 1981. urtean egin zen, Hego Amerika eta Karibeko lehenengo topaketa feministetan, eta etxe barruko tratu txar psikologiko zein fisikoak, bortxaketak, tortura sexualak edota estatuko indarkeria salatu ziren bertan. Azaroaren 25a hautatu zuten, Mirabal ahizpen oroimenez, dominikar gobernuaren aginduz erail baitzituzten, beraien jardun politiko eta soziala eteketo asmoz. Elkarte feministek eman zioten indarra egunari, eta pixkanaka-pixkanaka instituzioek parte hartzea lortu zuten.

Emakumeen kontrako indarkeria giza eskubi-deen urratze larrienetakoa da, eta gure gizartean hedatuenetako bat. Egungo gizarte patriarkalak bostere harremanak sortzen ditu, eta hauek desberdintasunean, hierarkizazioan eta liskar egoeretan oinarritzen dira; eta, noski, horrek guztiak ez du laguntzen emakumeenganako tratu txarrak eteten.

Genero indarkeria, batzuetan ezaguna eta besteetan ezkutukoa, emakumeei eragiten dien errealitate tristea da, bizi-bizi eragiten diena, gainera, eta beraien bizitzetan ondorio larriak izaten ditu.

Datu batzuk ematearren, Emakunderen txostenen arabera, 2002. urtetik 2013. urtera 32 emakume erail dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horrez gain, urtero, astero eta egunero, genero indarkeriak ehunka emakume bihurtzen ditu biktima.

Badirudi, emakume jaio izanagatik kondenatuta gaudela gauetan beldurra sentitzera, bakarrik ez ibiltzera eta askatasun mugatua izatera. Baina, honek ezin du horrela jarraitu; hau aldatzea guztion konpromisoa da, eskoletatik hasi eta familiek jarraituz, instituzio guztietara eta gizarte osora iritsi arte! ■



Karreape gaztelekua

Itsasondoko Gaztelekuko nerabeek buru-belarri dihardute beraien egitasmoak aurreraeramatzen. Hona hemen, hiru hilabete hauetan egin ditugun ekimenak.

Ikasturte honetarako egitasmoak

Haurren herriaren barruan eta eskolarekin elkarlanean, Gaztelekuko nerabeekin landuko den gaia SORMENA izango da.

Horretarako, nerabeekin saio parte-hartzaile batzuen bidez, ikasturtean zehar egin nahi diren ekintzak identifikatu, zerrendatu, eztabaiatu eta adostu dira. Helburua da ideien sorkuntza eta hedapena sustatzea eta intereseko proiektuak adostu eta aurrera eramatea, subjektu aktibo sentiaraziz. Hori dela eta, aurten honako saioak egingo dira:

- **GAZTELEKUKO GOIKO SOLAIRUAN MURALA:** horretarako, Jorge Gorrindo herritararekin lanketa egiten ari dira. Momentu honetan, muralaren gaia eta bozetoak lantzen dabilta. Nerabeek gustuko duten ekintza da, eta helburua da prozesu osoan protagonistak beraien izatea.
- **SUKALDE TAILERRA:** Iker Mendizabalekin sukalde tailer edo ikastaro txiki bat antolatatu.
- **TALLA IKASTAROA:** Gus Aranarekin egurra lantzen ikasi. Horrez gain...

Festetako pregoia antolatzea

Karreape gaztelekuko nerabeek festetan protagonista izan dira aurten. Beraien ardura izan da festei hasiera ematea. Horretarako, pregoia landu zuten eta ijituaren jaitziera prestatu zuten.

Azaroaren 25eko pankarta / dokumental emanaldia

Azaroaren 25eko kontzentrazioarako erabili zen pankarta egin zuten. Horretarako, Gazte Asanbladako kide baten laguntza izan zuten. Horrekin batera, Nagore Laffageren dokumentala ikusteko aukera izan zuten.

Talo ikastaroan parte hartzea

Gaztelekuko nerabeek azaroaren 14an eta 21ean Jubilatua elkartearen egin zen talo ikastaroan parte hartu zuten.

Egin diren ekintzak

Horrez gain, gustuko ekintzak egin dituzte: eskulanak, sukalde tailerra, mahai jolasak, karretara irteera, afaria eta antzerkia ikustera joan... Ikasturte honetan ere horrelako ekintzekin jarraituko dute.

Guraso bilera

Karreape gaztelekuak bost urte bete ditu. Hori dela eta, guraso bilera bat antolatu zen, eta bertan, egitasmoa azaldu eta beraien iritziak, ekarpenak jasotzeko saioa prestatu eta gauzatu zen. ■



Hauren herria egitasmoa

Hauren herria orain urtebete sortu zuen Itsasondoko Udaleko Gazteria Sailak. Hasieran, ez genekien nora eramango gintuen honak guztiak. Guk garbi genuen haur eta gazteekin lan egiten genuen profesionalok bat egin behar genuela. Horrelaxe, haurreskolako hezitzaileek, eskolako irakasleek, guraso elkarteko ki-deek eta Gazteria Sailak osatu genuen lan taldea. Hauek dira egitasmo honen helburu orokorrak:

EGITASMOAREN HELBURU OROKORRAK

- Oinarriak eraiki haur parte-hartzaileak, autonomoak, kritikoak eta sortzaileak herriko parte izateko.
- Elkarlana heziketa formal eta ez formalaren artean.
- Hemengo eskolara etortzen ez diren haurrak gureganatzea, herrian gertzea.

Urriaren 14an, gurasoen aurrean azaldu genuen egitasmoa. Bilera horretan, etorri ziren gurasoek ekarpenak eta proposamenak egin zituzten, eta guk gustura jaso genituen. Sentsazio onak izan ziren bileran, eta jarri den lehen harri horrek inixaropentsu agertu zen jendea.

Lan taldea hilabetero elkartzen da, eta momentu honetan, hainbat ideia eta ekimen ditugu eskuartean. Horien artean hona hemen batzuk:

1. Altxorraren bila herrian zehar eta haurren herria festa: abenduaren 20an egin zen festa, eta bertan, familia eta herritar ugari parte hartu zuten.
2. Kamisetak ...atera.
3. Ikustentzunezko materiala sortu, bildu eta herrian banatu.
4. Herrian txangoa egingo da. Herria elkartuko duen ekitaldi bat egin nahi da, ekintza bateratu bat, herritar guztiek parte hartuko dutena eta herria gaitzat hartuta. Bertan, herritik gus-tatzen zaizkigun eta ez zaizkigun gauzak adierazi, zerbitzuak ikusi, aztertu, hobetzeko proposamenak egin ahal izango dira.

EGUNA: urtarrilaren 17a (larunbata)

EKINTZA: TXANGOA HERRIAN

Herritarren parte-hartzeak eta inplikazioak garrantzi handia dauka herri txikien dinamizazioan. Eta hori sustatu ahal izateko, ezinbestekoa da ahalik eta herritar gehien barne hartuko dituen zerbitzuak eskaintzea eta herritar gehienek parte hartuko duten prozesuak sortzea. Nork bere tokian jasotako zerbitzuek beste hainbat helburu badituzte ere, herritarren parte-hartzea indartu eta herriarekiko atxikimendua handitzen dute. Gu horretan gabilta. ■



Festetako ijitua



Festak prestatzeko billera



Gaztelekuko murala nola egin erabakitzen



Talo ikastaroa gazteak parte hartzea

Mirari Gaztañaga

“Ikasketak eta lanak gidaturik munduan zehar”



Psikologian lizentziatua eta “Haurdunaldian amak aldizka alkohol a edateak, haurraren izan ditzazkeen eraginak” egiten ari den dokturdutza tesiak, jende, lurralde eta bizipen ezberdinak izatera eraman du 26 urteko Itsasondoar gazte hau, hemen dituzue hauetako batzu.

Zein da Mirari? Nun sortua? Nun jaioa?

Ni jaio nintzen Itsasondon 1988n. 26 urte dauzket. Anai arrebak gea. Anaia Mikel ni baino 9 urte zaharragoa. Garai artan Goiko Kalen bizi ginen ama, aita, izeba Mari Kruz, Mikel eta ni. Garai hartako rekuerdo handik ez dauket. Ni gogoratzen hasten naizenerako Mikel bizikletan ibiltzen zan eta beti kanpoan ginen, karreraren bat ikusten edo entrenatzera, Gipuzkoatik buelta dexente ematen genitun Mikelen eskusarekin. Kirolari bat etxean izateak holakoak dakarzki.

Herri Eskolan ere ibiliko zinen?

Bai, bai. Nik 12 urte harte hemen ikasi nuen, Itsasondoko herri eskolan. Nere lehen rekuerdok die Maite andereñoarekin irakurtzen hasi nintzenen. Irakurtzea gustatzen zitzaizden eta beti liburuak eta lanak eskatzen nizkion. Beitu ze direfentzi daon, Mikel beti kirolen eta ni liburu eske ba irakurtzeko. Biok oso ezberdinek izan gea alde hortatik

Irakurzaletasunaz aparte ze nolako oroitzen dituzu gehio eskolan bueltan? Zuek ez zineten asko izango garai hartan eskolan ala?

Oso gutxi. Ni nere kintako bakarra nintzen. 88 kintakoak uste Itsasondon bi pertsona geala, Maitane Iraolakoa, baina hura zuzenean Ordiziko ikastolan hasi zan eta orduan Itsasondoko eskolan ni bakarrik nintzen. Ni baino bat zaharragoak zeuden Ane Larrañaga, eta botikako Aitor Andres. Ni baino bi zaharragoak Inge, Iraitz, Ekaitz... eta ni baino bat gazteago Eneko Alberdi. Nere lehenengo oroitzenak beti die Enekokin, beti elkarrekin ibiltzen ginela. Nik uste garai hartan 20 inguru pertsona ginela eskolan, oso oso gutxi. LH-ra pasatzen ginenean 1, 2 eta 3. maila elkarrekin egoten ginen gelan, eta 4, 5 eta 6. beste gelan. Egia esan oso oroitzenak onak dauzket, denak elkarrekin, adin oso ezberdinak... beti 2 urte gora, bi urte bera, beti elkarrekin jolas-

ten. Plazara jolastera jeitxi, herri guztian zehar izkutaketa ere ibiltzen ginen. Aio-ko udaleku egonaldietako oroitzen oso onak ditut baita ere, pista eta erreka nola joaten ginen bainatzera...

Gaur egun eskola zorionez, haur aldetik egoera hobean dago. Baina herri txikiak izanik beti dago “mamu hori”, batzu ez dira fiatzen hor ematen den hezkuntza mailarekin eta beldur horrek eraginda zuzenean kanpoko ikastetxetara eramaten dituzte beraien haurrak. Zer esango zenioke guraso horri?

Nik iritzi oso garbia dauket. Eskola Txikiak aurkakok baiño aldekoak gehiago ditu. Irakaslearekin daukazun harreman askoz ere gertuagoakoa da. Irakaslek zure familia osorik ezagutzen dute, zure testuinguru guztia gertutik ezagutzen du eta hori oso oso garrantzitsua da, bereziki lehen bi hezkuntza mailatan. Eta herriarekiko lehen esan dizudan bezela, nere oroitzena da herri guztian zehar ibiltzen ginela jolasean eta nere amak beti zekien nun nenbilen jolasean, eta nik ez banion esan plazan beste norbaitek bazekien nun gembiltzan; “Mirari eta haruntzaldera jun die”. Egia da 11-12 urterekin bai eskatzen dezula beste gauza bat, herri handiago bat, lagun gehiago... baina hezkuntza aldetik oso garbi daukat eskola txiki batek behar duzuna ematen dizula. Hemendik instituturara salto egiterakoan hasieran bai pasatzen duzu “txokea”, hezkuntza sistema aldatzen delako batipat, azterketak, gela oso handiak, 25 pertsonako gelak... baina hezkuntza aldetik arazo gabe adaptatzen zea. Nik beintzat ez dut zalantzarik, abantaila asko dituela uste det.

Umetan zer izan nahi zundun handia egitean?

Ume umetan ez dakit zer esaten nuen. Agian ama izan nahi nuela edo... asko jolasten bait nun muñekakin baina argi argi ez naiz akordatzen. Ni gogoratzen naizenetik beti esan izan dut psikologa izan nahi nuela, baina egia esatea nahi badezu ez nekien zer zen psikologa bat ere, umetan ez bait da oso ohikoa psikologo batek zer egiten duen jakitea. Instituturara pasa nintzenean oso garbi neukan psikologoa izan nahi nuela. Azken urtetan zalantzak izan nitun haur hezkuntzarekin baina ez, nahiko garbi neukan.

Itsasondoko Herri Eskolatik, Ordiziko Oianguren instituturara. Nolako izan zen saltoa?

Bai 12 urterekin LH bukatu eta DBHra pasa nintzen Ordiziko instituturara. Salto

hau izan zen agian neretzako gogorrena, hemendik bakarrik joan behar bait nintzen eta oroitzen naiz nola esaten nuen "nahiago det errepikatu eta Enekorekin batera jun". Momenturik gogorrena agian hura izan zen, beldur asko, gela handiak, irakasle ezezagunak... Legorreta, Zaldibi eta inguruko herri txikieta-tik lau-bost bat lagun etorri ziren eta denak lagunek edo gutxienez ezagunak ziren. Egia esan gero segituen egin nituen lagunak eta kuadrila eta bukaeran ez nuen Ordizitiki atera nahi.

Ordiziko institutoan amaitu eta nahiko garbi zenuen Psikologia ikasi nahi zenuela ezta? Nola jarraitzen du zure biziak?

Ordizian DBH egin nuen, gero Batxilergoa eta bukatzean selektibitate eta gero ia psikologia ikastera Donostira joan nintzen EHUko unibertsitatara. Donostira ere bakarrik joatea tokatu zitzaienten, baina bistaz eta ezagutzen nuen jendea bazegoen eta salto hori errezagoa izan zan. Egia da helduagoa zeala, 18 urte... eta ia beste gauza bat da. Behin karrera hasita ere oso oroitzapen onak ditut, oso gustora egin nuen karrera guztie. Haren hori nahi nuela eta espero nuen guztia bilatu nuen. Unibertsitatearekiko nituen hasierako beldurrak, zaila izango zela, asko ikasi beharko nuela etabar ez ziren horrenbestera izan. Ikasturteak pasa ahala ikasgaiak zuk aukeratzen dituzu eta 3. eta 4. mailan nik nahi nituen hautazko ikasgaiak aukeratuz oso oso gustora egin nituen azken urteak.

Psikologiak adar pilla bat ditu eta hasieran behintzat adar guztietatik zerbat ikasten joaten zara. Nere intentzioa psikologia klinikoak ikastea zan, psikoterapeuta izateko, hori bait zen ezagutzen nuen alor bakarra momentu horretan baina aurrera egin ahala adar ezberdinak ezagutzen joaten zea eta gustokoa aukeratzen joaten zea. Hasierako nere ikasgai gehienak haur psikologia klinikoari lotutakoak izan ziren, haur terapiari lan egiteko, baina 5. urtean praktikak aukeratu behar genituen eta Donostiko Ekintza ikastolan egin nituen bertako orientatzailearekin batera, honek hezkuntza orientazio aldera eraman nindun. Asko gustatu zitzaienten hurrekin lan egitea.

5. urtean baita ere psikofarmatologia ere aukeratu nuen, psikiatrian erabiltzen diren farmako ezberdinak ikasten die. Egia da psikologok ezin dugula erreze-tatu baina zuk dituzun pazienteak farma-

koak hartzen baditu jakin behar duzu zer hartzen ari den, zer eragin dituzten, noiz bidali behar duzun zure pazienteak psikiatriarengana farmakoren bat behar duela... hori dena ikasi egin behar da baita ere. Ikasgai hori ingelesez aukeratu nuen, eta orduan ezagutu nuen orain nere zuzendaria den irakaslea, Gabriela.

5. urte honetan ere, praktikekin batera kolaborazio beka bat eskatzeko aukera izan nun Eusko Jaurlaritzan Gabrielakin psikologia fakultateko laborategian lan egiteko. Gabrielak haurdunaldian alkoholak dituen eraginak aztertzen ditu, eta laborategian bere laguntzaile modura egon nintzen. Goizetan Ekintza eskolan praktikak egin eta arratsaldean Gabrielakin laborategian egoten nintzen.

Gustoko bi gaiak nituen esku artean; hurrekin lan egitea batetik eta laborategiko lana bestetik eta momentu hartan, Gabrielakin oso gustora neon laborategian eta doktoretzako tesia egiteko aukera azaldu zen. Eusko jaurlaritzak eta EHUren beka zeuden eta momentuan zalantzak izan nituen; haur hezkuntzari jarraitu, beka lortu eta master bat eginez gehiago espezializatu edo laborategian geratu. Momentu horretan errezagoa zen neretzat laborategian geratu eta doktoretza egitea, kanpora atera eta haur hezkuntzako master bat egitea baino. Horregatik erabaki nuen Gabrielarekin laborategian jarraitzea.

Hori 2011an izan zen. Lizentziatura bukatu eta uda horretan Eusko Jaurlaritzako kolaborazio bekaekin Gabrielarekin egon nintzen lanean. Doktoretza egiteko 4 urtetarako beka ere eskatu nuen eta emango zidatela jakinerazi zidaten. Beraz 2012ko urtarrilean doktoretzako tesia egiten hasi nintzen.

Gaur egun era tesiarekin jarraitzen duzu?

Bai bai. Orain hirugarren urtean nago eta urtarrilean 4. urtean eta azkekoan hasiko naiz.

EHUko beka predoktorala eta Eusko Jaurlaritzako beka lortzeko zure unibertsitateko notak eta ze proiektu aurkezten dezun hartzen dute kontutan baina baita zure zuzendariaren kurrikulum-ak eta ze ikerketa taldeetan sartzen zean. Egia da nere alde faktore asko nituela, Gabrielaren kurrikulum-a oso ona da, aurkeztu nuen proiektua (tesia egiteko) ere oso ondo puntuatu zuten eta ikerketa taldea oso potentea dugu, beraz alde horretatik puntuazio altua jaso nuen.

Bueno, eta notak ere onak izango zenuen?

Ez pentsa, ez nuen batzbesteko nota ona baina beka emateko nahikoa jeje! Egia esan zortea izan nuen ze bi beka eman zizkidaten, EHUkoa eta Eusko Jaurlaritzako eta azkenean Eusko Jaurlaritzako bekaekin geratu nintzen.

Bi bekatatik bat aukeratu behar izan zenuen?

Bai, hori da. Momentu hartan Eusko Jaurlaritzakoak kondizio hobekak zituen, kanpora joateko diru laguntzak eskatzen uzten bait zizuten eta bereziki horregatik aukeratu nuen.

4 urteko beka da baina azken bi urtetan EHU-k formakuntza kontrato bat egiten ditu.

Ikerketa taldean gehien interesatzen zaiguna haurdunaldiaren garapenean ikaskuntza nola ematen dan da. Horren barruan neri, haurdunaldian zapora eta usaimenaren ikaskuntza nola ematen den aztertzea interesatzen zait. Gure ikerketa laborategiko arratoiekin egiten dugu. Nere tesia alkoholaren inguruan dago zentratuta eta errealtatean emakume haurdun batekin ezin dugunez lan egin, laborategiko arratoiekin egiten dugu. Neri aztertzea interesatzen zaidan da haurdunaldian nola ikasten den estimulo ezberdinen inguruan, amaren "dieta"tik nola ikasten den zaporeak bereizten, droga edo alkoholetik datorrena edo ez. Ikus genuen haurdunaldiko momentu zehatz batean alkohola modu moderatu batean emanda, ez duela eragin berezirik umearen forma fisikokoan, malformazioan esan nahi det, baina bai bere erreazioa alkoholarekiko aldatu egiten dala. Gure azterketak erakutsi digu, haurdunaldiko momentu jakin batean alkohola edan ezgero, haur horrek neraberezaroan alkohola gustokoa duela. Besteek baino gehiago kontsumitzen dute eta alkoholaren zaporea gustatzen zaie. Hau ezin dugu orokortu eta gutxiago horren arin hitz egin gai honen inguruan, baina zuek ulertzeko modu simple batean esplikatu hori da gure ikerketa bidea. Ikerketa asko daude alkoholaren inguruan baina gehienak alkohol asko kontsumitzen dutenen artean sortzen diren efektuetan zentratzen dira. Hor nabaritzen dira haurdunaldian malformazio handienak: pisu gutxiago, "sindrome fetal alcohólico" delakoa izaten dute normalean, zailtasun kognitiboak dituzte... Guk ikusi

duguna da oso oso gutxi kontsumituta ere eta oso egun zehaztuta, zerbait aldatzen dela. Kasu honetan arratoietan ikusi dugu, umetan ere ikusi da baina guk bereziki arratoietan. Gure ikerketa guzti honen zergaitia zera bilatzea da; zer dagoen edo zer sortzen den likido amiotokoa hori gustatzea eramaten gaituena, edo zer dago gure garunean hori gustarazten diguna.

Linea ezberdinak daude, baina nire tesian garuneko sistema opioidetan zentratu naiz. Alkoholak garuneko opioideak aktibatzen ditu eta farmako ezberdinekin (administratzen oso bajuekin) opioide hoiak manipulatzen saiatu gea, efektua nola jeisten den ikusteko.

Ez dakit ondo ulertzen den, zaila da horrela bapatean esplikatzea...

Beka honen bueltan edo zuzendariaren bueltan, baina bidaitu ere egin dugu?

2013-an Binghamton-era (Estatu Batuetara) kongresu batera joateko aukera izan nun Gabrielarekin eta handik, bere bidez bertako unibertsitatera hilabete ta erdi bateako lan egitera joateko aukera suertatu zitzaizten. Gabriela Argentinarra da eta tesia egin ostean unibertsitate honetan lan egin zuen. Aurten doktoretzako hirugarren urtean sartuta, Eusko Jaurlaritzan hiru hilabete eta erdirako diru laguntza bat eskatu nuen bertara bueltatzeko lanera.

Kanpora joatea oso aberatsgarria izan da. Zure ikerketa taldean eta zure laborategian lan egiten duzu baina bertatik ateratzen zeanean ere asko ikasten duzu, lehenik eta behin beste sistema batetik lan egiten ikasten dezu, beraien lan egiteko modura adaptatzen bait zea. Beste ikerketa talde bat izanda beraien ikuspuntuak ere asko laguntzen dizu, beste ideia batzu planteatzen zea. Nere kasuan han bazituzten gure laborategian erabiltzen ez ditugun teknikak, eta aprobetxatu egin nuen ikasi eta erabiltzeko.

Hau ere oso esperientzia polita izan da, aberatsgarria. Aukera ona izan dudala pentstazen dut. Hango unibertsitate oso handia da, hemengo EHU baino dexente handiagoa esango nuke eta laborategiak ere berri berriak die. Nik, nere lehen hilabete erdiko egonaldian estreinatu nituen, asike pentsa. Diru asko dute eta erakin oso bat dute laborategi gisa erabiltzeko. Teknologia aldetik ere oso aurreratuta daude.

Guk egiten duguna ikerketa basikoa dela esango genuke, eta ondoren ikerketa horretatik ateratzen diren emaitzak ikerketa aplikatura doaz, batzu gizakitan ere aplikatzen direlarik. Estatu Batuetan ikerketa oinarritzko hau sakonago edo errespetuz lantzen dute.

Bertako egonaldian, justu abuztuaren jubilatu berri den ikerlari on batekin ikasteko aukera izan nuen, eta esan dezaket bere azken doktoretzako ikaslea izan naitzela, beraz neretzako ohore bat izan zan bere ondoan lan egin eta berarekin emaitzak kontrastatu ahal izatea.

Beraz, Bingantoneko laborategi honetan bitan izan zea ezta?

Bai, 2012 bukaeran hilabete ta erdi egon nintzen, urrian joan eta azaroan bueltatu eta azkenezko hiru hilabetetarako izan naiz aurtean, 2014an, martxoan joan eta ekainean bueltatu.

Laborategiko lanez aparte konferentzi batzuetara ere izan zea ezta?

Bai, normalean ikertzaileek egiten duten lana ondoren demostratu edo erakutsi egiten dute kongresu zientifikoetan eta gu urtero pare batetara joaten gara. Bat, normalean urtero egiten den "Sociedad de Psicología comparada" joaten gara. 2013-an Donostian egin genuen eta gure ikerketa taldeak antolatua genuen. Eta bestea, hau ere urtero izaten dena baina Estatu Batuetan ISDP (Internacional Society for Developmental Psychobiology) deitzen dan kongresu batea.

Kongresu hauek aberasgarriak izaten dira; jende berria ezagutzen dezu, kontaktuak egin ditzazkezu, ikerketa berdinean dabilzan jendea ezagutzen dezu eta bata besteari laguntzeko harremanak egiten dituzu, besteen ikerketari buruz eztabaidatzen duzu, erreflexionatu arazi egiten dizu.

Gabrielak beti erakutsi digu kongresu hauetara joateran garrantzia.

Kongresuren batean hizlari izatea tokatu zaizu?

Ba bai, beida aurten tokatu zait lehen aldiz, duela hilabete Washingtonen, ISDP kongresuan 200 lagunengatik aurrean hitz egitea tokatu zitzaidan.

Mundu guztitik joandako jendea noski?

Bai bai, kongresu internazionala zan. Gainera kasualitatez izan zen ze hasiera batean Gabriela eta beste lankide bat joan behar ziren. Nik kongresurako materiala prestatzen lagundu nien, eta

azken momentuan lankideak ezin zuela eta ni joan behar izan nuen. Azaroak 11 joan ginen eta 13an eman nuen hitzaldia. 10-15 minutuko hitzaldia izaten da eta ondoren 5 galdera. Oso urduri hasi nintzen, lehen aldia bait zen hitzaldi bat ematen nuena, baijan horretatik ere ateratu nintzen. Hitzein nun, galdera dexentei ere erantzun nien eta azkenean gustora egin nun.

Horrenbeste jenderen aurrean egoteak errespetua emango du ezta? Gainera batzu ez dira edozein izango?

Bai, beno, ikasle pila bat egoten die baina bai, badaude urte asko ikertzen daramaten ikertzaileak eta noski ezin dezu edozer gauza bota. Baina normalean oso ambiente ona izaten da kongresu horretan eta galderak ere ez dira zailak izaten. Ikasleak asko baloratzen dituzten kongresua da eta askotan galderak izan beharrean laguntzeko aholkuak ere izaten dira.

Holako kongresutan parte hartzeko ingelesa kontrolatuko dezu ezta?

Bai, kontrolatzen det bai. Bereziki ulertzeko erretasuna dut eta hitzegiten ere moldatzen naiz, ondo komunikatzen naiz, jeje. Kongresuko hizkera zientifikoa ere ondo menperatzen dut.

Beste hizkuntzarik?

Ez. Euskera, Erdera eta Ingelesa. Eta nahiko lan, jejeje!

2015eko abenduaren 31an bukatzen zaizu beka. Nola ikusten dezu etorkizuna?

Beltz. Egia esan ezdakit. Batzutan jartzen naiz pentsatzen baina tesiak nahiko lan ematen dit eta nahiago det horretan kontzentratu.

Ondorenean zer? Ba ezdakit. Unibertsitateko lan poltsatan apuntatuta nago. Puntuak ematen dizkizute egiten dituzun hitzaldi eta abarreatatik, baina nahiko beltz dago asuntua.

Eta eskuartearen duzun haur hezkuntza bidea?

Aurten, Haur Hezkuntzako orientatzeile izateko master bat egiten hasi naiz (lehen KAP zenaren ordezkoa), 2015an beka bukatzen zaidanez ateak irekitzen hasteko. Geroz eta zailago dago lanpostuetarako bidea, geroz eta titulo gehiago eskatzen bait dira. Beraz oraingoz horretan nabili. Neri ikertzaile modun jarraitzea gustatuko litzaidake, Unibertsitatean klaseak eman eta ikerketarako

denbora izatea, hori da nire "ametsa" esan dezagun. Baina bueno inoiz ezda-kigu, ez da erreza.

Masterra gustora egiten ari naiz eta ez dizkiot atek ixten haurrekin lan egiteari.

Eskolaren batean?

Bai, bigarren hezkuntzako ikastetxeraren batean edo bai, hori da orientatzaile gixara.

Zure ibilbidean anekdotarik?

Bueno, anekdota asko izaten ditugu arratoiekin. Lehen kontatu bezela laborategiko arratoiekin lan egiten dut. Guk "administración intragastrica" egiten deu, estomagora zuzenean tubo bat sartu eta alkohola injektatu. Baina noski arratoiei ez zai gustatzen eta askotan sustoak izaten ditugu. Ez dira agresiboak eta normalean ez dute koska edo minik egiten. Behin abisu moduan edo batekin egiten zidan kosk.

Behin, gogoratzen naiz, arratoiak kaxa handi batzutan egoten die eta normalean animala sozialak direnez binaka edo hirunaka jartzen ditugu, bakoitza bere etiketa edo zenbakiarekin. Behin ez naiz gogoratzen zertako kaxa ireki nuen eta isterakoak ohartu nintzen hiru etiketa zeudela eta barruan bi arratoi. Bapatean lurreen zerbait mugiten ikusi nuen eta hara non ikusten deten falta zan arratoia... eskerrak laborategiko atea itxita nuela. Lankide bati laguntza eskatu eta hantxe ibili ginen arratoiaren bila. Holako pare bat susto izan dittugu.

Normalean alkohol administrazio baxuak egiten baditugu ere, izan dugu kasun bat arratoia hil dena, eta horrek ere izugarritzko pena ematen dizu, superatzen ere zailtasunak daude baina bueno hori ere lanaren parte da. Ikerketa hasten duzunean badakizu arratoi hori bukaeran hil egingo dela, eta hori ere gogorra da.

Lan kontuak aparte, denbora librean zein da zure zaletasuna?

Irakurzaletasuna. Azkeneko urteetan lana dela eta txosten zientifiko asko irakurri behar izan ditut, eta egia da liburu bat hartzea asko kostatu zaidala azken urte hautan, baina oraindik bai da nere zaletasun handietako bat irakurtzea. Askok gustatzen zait irakurtzea, eta batez ere udan, ez dudanean lanera joan beharrik.

Ze liburu aholkatuko zenuke?

Carlos Ruiz Zafón en "La sombra del viento" asko gustatu zitzaidan, baina



Frantzia izandako kongresu batean



Niagarako ur jauzietan



Torontoko Unibertsitatean

hori aspaldi irakurri nuen. Azkena irakurri dudana eta asko gustatu zaidana John Steinbcken-en "Al Este del Eden". Lankide asko ditut Argentinarrak eta berriek gomendatuta Alejandra Pizarnik autorearen poema liburu bat ere irakurri nuen, asko gustatu ziztaien. Beste bat, udan irakurri dudana Julio Cortazarren "Rayuela".

Lankide eta zuzendaria Argentinarrak izanda, ez al zaizu aukerarik suertatu Argentina aldera joateko?

Bai, estantzi bat egitera joateko aukera badet eta buruan bueltaka darabilkiten gauza bat da, bai. Lankideak argentinarrak izanda egia da oso gertutik ezagutuko banu bezela sentitzen detela Cordoba hiriko laborategikoak dira lankideak eta gustatuko litzaidake ezagutzea. Aurten ibili naiz tentatuta joateko baina justu orain klase batzu ematen hasiko naiz, tesia eta masterra ere hor ditut beraz ez dela momentua iruditzen zait. Argentinako aukera badakit hor izango dudala, beraz aurrerago zihur joango naizela.

Lanarengatik eta afizioagatik, ibili al zara bidaiatzen?

Bai, hori beste afizotako bat ere bada. Estatu batuetako estantzian Kanada (lagun bat bisitatzer), New York, Washington, Ohio (beste lagun bat bisitatzer)... ezagutu ditut. Europa mailan, Paris eta Londres ere ezagutzen ditut. ■

3 galdere motz

Zer duzu gustoko Itsasondotik?

Neretako Itsasondo nere herria da. Nongoa naizen galdetzen didatenean beti esaten dut Itsasondoko, Donostin bizi den Itsasondoarra. Ni hona etortzen naizenean herriko beste bat bezela sentitzen naiz. Askotan pentsatzen degu hiri edo herri handiago batean degu gauza gehiago egiteko aukera dugula, baina adibidez nere haurtzaroen izan dudana askatasun hori, herri txiki batekoa nintzelako izan dut eta orain gehiago baloratzen dut.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondotik?

Herri txiki batek duen komodidadea. Eta noski, ama ere bertan dudanez etxeko goxotasuna hemen dudala.

Inoiz izan duzun amets bat?

Gaur egun, tesia bukatu ondoren lan duhin bat bilatzea. Nere ikasketen inguruko lan duhina bilatzea, estabilitate eta lasaitasun pixkat izateko bizitzan eta bizitaz disfrutatzeke.



Nola jakin genero indarkeriaren biktima zaren

AZAROAK 25: emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako eguna zela eta, ekitaldiak izan ziren Itsasondon. Arratsaldeko 18:30etan elkarretaratzea egin zen plazan. Bertan, gaztelekuko nerabeek egin zuten pankartan adierazi bezala, ez azaroaren 25ean bakarrik, egunero gaitzetsi behar dela adierazi zuten hainbat herritarrek. Ondoren, Nagore Laffageren dokumentala ikusteko aukera izan zen, eta bertan 27 bat herritarrek hartu zuten parte. Eguna mokadutxoarekin eta tertuliarekin bukatu zen.

Askotan entzuten ditugu gai honi buruzko albisteak. Gure lurraldean edo beste batean halako emakume bat hilda agertu dela, edo zauritua, edo jipoitua... eta normalean, bere bikotekideak edo bikotekide ohiak izaten du eraso hauetan zerikusirik. Baina, gure inguruan horrelako zerbait gertatzen ari den ala ez jakitea ez da gehienetan erraza izaten, gaia ezkututzen delako, lotsa ematen duelako holako egoera bat aitortzeak, e.a. Beste batzuetan, ordea, gertatutakoaren ondoren, gertukoek esaten dute ikusten zela holakoren bat gerta zitekeela, askotan salatu zuela biktimak eta ez dela inongo neurririk hartu. Horrelakoetan nola jokatu, nora joan eta nork lagundu dezakeen ez dugu jakiten, ezta ere ze kasutan salatu daitezkeen jarrera hauek. Eta gero, damutu egiten gara zerbait egin ez izanaz. Garbi izan behar dugu denok, gizon eta emakumeok, egoera hauek suntsitzea denon eskutan dagoela, zerbait egin dezakegula. Baina, nola?

Zure bikotekide edo bikotekide ohia- ren indarkeria jasan baduzu edo jasaten baduzu. Indarkeria hori ez da soilik gertatzen eraso fisikoak edo sexualak dau-

delako; horrez gain, jakin behar duzu indarkeria mota hori jasaten ari zarela baita ere baldin eta zure bikotekideak edo bikotekide ohiak hau egiten dizula sentitzen baduzu:

Kontrolatzen zaitu: deitzen dizu, behin eta berriro SMSak bidaltzen dizkizu, nora eta norekin joaten zaren azaltzeko eskatzen dizu edo zer egin edo esaten duzun, dirua kontrolatzen dizu edo nola jazten zaren; gustatzen ez zaionean aldatzeko esaten dizu edo

Bakartzen zaitu: ez du atsegin zuk lagunak izatea, ez du nahi zure familia ikustea, edo gutxiesten zaitu besteen aurrean, etengabe oihukatzen zaitu, errua beti zurea dela eta beti oker zaudela esaten dizu edo

Ikaratzen zaitu: haren beldur zara, iraintzen edo lotsarazten zaitu, bere buruz beste egingo duela, edo zure seme-alabak kenduko dizkizula esaten dizu, pasaporteak edo bankuko libretak kentzen dizkizu, xantaia egiten dizu, e.a.

Izan daiteke baita ere inguruko beste gizonen baten indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala jasatea. Edo sexu-askatasunaren kontrako delituren baten biktima izatea, hala nola, sexu-erasoa,

sexu-abusua, sexu-jazarpena, behartutako prostituzioa, gizakien salerosketa...

Aurreko egoera horien guztien aurrean, EZ JUSTIFIKATU, EZ ONARTU, AURRE EGIN EGOERARI.

Egoerari aurre egiteko prestatuta egon behar duzu, eta gogoratu:

Zu zure bizitzaren eta zure gorputzaren jabe zara eta ezetz esateko eskubidea duzu. Gertatzen zaizuna ez gorde zuretzat, bila itzazu laguntzak, horretarako zerbitzu espezializatuak zure eskura baitaude: Ertzaintza, Epaitegia, Fiskaltza, Gizarte Zerbitzuak, medikuak...

Edozein balia daiteke zerbitzu horietaz eta bertan arreta ezberdinak izango dituzu: laguntza psikologikoa, prozesu judizialaren nondik norakoaz aholkua eskatu eta laguntza izan, epaitegirako prestatu, doako justizia izapidetu eta beste hainbat eskubideren edo baliabideren azalpena jasotzeko aukera izango duzu.

Zalantzarik baldin baduzu, zure herriko Gizarte Zerbitzuetan galdetu edo zuzenean Donostiako Justizia Jauregia deitu: 900 100 928 (doakoa).

INFORMA ZAITEZ eta jakin EZ ZAUDELA BAKARRIK. ■

Jubilatuen Eguna

XXXVII. Jubilatuen Eguna, irailaren 28an

Urtero lez, iraileko azken igandean Itsasondoko Jubilatuen Eguna ospatu genuen; giro ederrean ospatu ere. Goizean goiz-eresiarekin hasi, eta ohiturari jarraituz, 11:00etan meza nagusia izan zen. Ondoren, Bizi Nahi elkarteak hamaiketako eskaini zigun bere elkarte, eta hamaiketakoaren ostean, 14:00ak aldera, Nautikora joan ginen bazkaltzera. Bazkalostean, zaharrenei opariak banatu zitzaizkien omenaldi gisa, eta nobedade moduan, zozketa bat ere prestatu genuen. Zerbakiak banatu eta gazta eta ardo botila bat zozketatu genituen. Ea datorren urtean zer tokatzen den! ■



Txangoa

Nafarroa aldera txango "goxo", urriaren 9an

Beti bezala, 08:30ean genuen hitzordua herriko plazan. 31 lagun autobusa hartu eta Elizondo aldera abiatu ginen. Bidean, 10:30ean Arizkun geratu eta Ordoki jatetxean eman zигuten salda eta txistorrarekin indarberritu ginen. Hamaiketako egin ostean, berriz autobusera sartu eta Anizera joan ginen. Bertan, "Jauregia" baserrikoek atek ireki zizkiguten, bertako esne behien esnearekin ekoizten duten gazta eta jogurt ekologikoak gertuagotik ezagutarazi asmoz.

14:30ean, berriz ere Arizkunera bueltatu ginen bazkaltzera. Bazkalosteko postrearen bila, oster, lurretara joan ginen. Arkupe gozotegian txokolata nola egiten zuten ikustera. Arkupe gozotegia aditua da pastelak eta txokolatzeko produktu landuak egiten. Ahozapaia ondo goxatu eta Elizondorako bideari ekin genion, gogotsu. Elizondon, ordubeteko egonaldia egin genuen, eta herria ikusi eta nahi zuenak Arkupe gozotegiko kafetegian kafesnea edo txokolate beroa hartu zuen. Iluntzerako, berriz autobusean sartu eta Itsasondora bueltan ginen. ■



Kontsumobide tailerrak

Kontsumobideren "Informa zaitetz eta ezusteak saihestu!" kanpaina

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak 2014an "Informa zaitetz eta ezusteak saihestu!" prestakuntza kanpaina euskal udalerrietan abian jarri du.

Itsasondon ere Bizi-Nahi jubilatuen elkarte, egon da bi saio hauek aurkeztu ditu:

1. Urriaren 24an "Gure burua babesten. Kontsumoko arbitrajea" jardunaldia.
2. Azaroaren 14an "Hornidurei buruz jakin behar duzuna" jardunaldia.

Kontsumobidek ekintza hauekin kontsumo-erloko eskubideak eta konponbideak ezagutzera eman nahi ditu, herritarrok kontsumitzaile arduratsuagoak izateko eta kontsumo gatazkak aurreikusteko.

Bestalde, Kontsumobidek gomendatzen du arretaz biltzeko eztablezimendu komertzialetik kanpo produktuak erosterakoan edo zerbitzuak kontratatzerakoan (etxebizitzetan, telefonoz, ...).

AHOLKU OROKORRAK

- Kritikoa izan eta ez liluratu publizitate erakargarriekin.
- Ziurtatu produktua saltzen saiatzen ari den pertsonaren nor-tasuna. Egiaztatu benetan enpresa horretan lan egiten duela.
- Saltzailearen presioa ekidin. Kontratua sinatu baino lehen, pentsatu benetan interesatzen zaizun.
- Kontratua sinatu aurretik, lasai irakurri.
- Gorde ordainagiri guztiak. Beharrezkoak dira eskuratutako produktu edo zerbitzuaren bermea aplikatzeko edo edozein erreklamazio egiteko.
- GOGOAN IZAN: publizitatea beti loteslea da eta, ondorioz, komeni da gordetzea, balizko ez-betetzeen aurrean froga gisa erabili baitaiteke.
- Kontuan izan, atzera egiteko eskubidea baliarazteko epea 14 egun naturalekoa da eta kontsumitzaileak produktua jasotzen duen momentutik hasiko da kontatzen.

Informazio gehiago webgunean www.kontsumobide.eus ■





2014. urtean parte-hartze prozesuak izan duen ibilbidearen aurkezpena

2012an Itsasondoko Udalak ITSASONDO EKINEZ EGINA parte-hartze prozesutik ateratako hiru lan-taldeek lanean jarraitu dute 2014. urte osoan, helburu nagusi batekin.

Helburua:
Itsasondoko herritarren ongizatea bilatzea eta herri bizitza aktiboa diseinatzea.
Itsasondo elkarlanean eraikitzea.
Hasierako eskema berarekin, gaur egun ere martxan jarraitzen dute lan-taldeak.



Lurralde antolamendua

Egindakoak

Monografikoak

Hirigintza kontzeptuak.
Lehen sektoreko hitzaldia.

Bidegorria

Proiektuaren jarraipena egin da urtarriletik. Maiatzean hasi ziren lanak, eta 2015 hasierarako bukatuta izango direla baieztatu digute.

Auzolan Taldea

Urtarrilean bost laguneko taldetoxoa osatu zen.

1. Hiru konpostaguneak montatu
2. Plazako bordilloak kendu
3. Eskolako txakola montatu
4. Frontoiko itxitura egin

Bizikleta Elektrokoak

EV Eren diru-laguntzen deialdia atera zen. Udaletxearen diru-laguntzak martxan jartzea adostu zen. Horretarako, aldizkarian (iraila bukaeran atera zena) informazioa argitaratu zen eta idazkariak prestatutako araudia erabili da. Laguntza izena ematen duten bost lagunei eman beharrean, apuntatzen direnen artean zozketatuko da.

Herriko festetan bizikleta bat ekarri eta erakusgai egon da.

Enirio Aralar

Mankomunitateko bileretara joateko ordezkari berria lotu da.

Mantenu Programa

Langileen orduak jasotzen dituen programa martxan jarri da. Gauza batzuk hobetzeko daude oraindik, baina oinarrikoena martxan dago.

Lan-talde honek 2012. urteko prozesutik ateratako EKINTZA PLANA izan du lanerako tresna; baina, ekintza horiez gain, eguneroko gaiak ere landu dituzte.

Hondakinak

Atez atekoaren urteko balorazioa

Itsasondo gainerako herriak baino hobeto dago. %25 defizita dago, hau da, 71.000 € kostatzen da, eta 54.000 € ordaintzen dira; beraz, 17.000 € ko gabezia dago. Hondakinen bilketa (baja) da garestiena eta tratatzea (alta) merkeagoa da. Defizita txikitze aldera zer egin daitekeen aztertu behar da. Hainbat proposamen daude, baina aztertu egin behar dira: konposta udalaren gain hartzea, ordutegia gauek goizera aldatzea, aste bukaeratan ez jasotzea...

Argiteria

Herriko argiteria hobetzeko proposamenak eskatu eta aztertu dira. 2015. urterako auditorioa egiteko diru partida izango da aurrekontuetan.

Beko Kale

Parte-hartze proiektu baten bidez herri-tarren proposamenak jaso dira, eta jasotako guztiarekin proiektua bukatuko du ITTENek.

Aurrekontuak

Dagoeneko ideia batzuk atera dira:

1. Herriko argiteriaren berrikuntza integrala
2. Eskolan egin beharreko konponketak (adibidez, berogailua, auditoria bat egin...)
4. Beko Kaleko proiektutik eratorri daitezken lanak...

Goiko Kale

Bukatu gabe geratu zen espaloi zatia bukatzeko diru-laguntzak eskatu dira eta lana bukatu da.

Udala

Martxoaren 8an edo 9an, udaletxean lapurreta egin dute. Hori dela eta, neurriak hartu behar direla komentatu da: 2. solairuko kristalezko atearen aurrean segurtasun pertsonala bat jartzea erabaki da. Aurrekontuak eskatu eta erabakia hartu da.

Sare Inalanbrikoa

Sare inalanbrikoak bi helburu ditu: lehenengoa wifia zabaltea, eta, bigarrena, pantailak eguneratzeko sistema erreztea. Udaletxeko teulatuan jarri den antenaren bidez, jubilatuetan, Kaxintanen, Lurdeseanean eta mediku etxean wifia dugu. Aldizkarian honen berri eman da.

Diru-Laguntzak Eskatu Dira

Abuztuan diputazioaren prentsa ohar bat ikusi genuen, esaten zuena herri txiki-entzabentzat inbertsioak egiteko diru-laguntzak zeudela. Hainbat proiektu txiki aurkeztu dira:

1. Elizako plazako lanak
2. Urkiko frontoia
3. San Juaneko saneamendua
4. Nautiko pareko soterramendua
5. Taldekide batek proposatu du zubiko zebraidea altxatzeko aurrekontua ere eskatzea/aztertzea.

2015. Urterako Aurreikusten Diren Lanak

1. Finantziario herrikoia akerak ondo aztertu proiektu 'handiak' garatzeko, kooperatiba modun...
 2. Beko kaleko proiektua bultzatu
 3. Datozen urte/hamarkadetako proiektuak finkatu (adibidez, eskola berria).
 4. Argiteria berri herri (eraginkorrago egiteko).
2014. urtetik egiteko geratu direnak:
1. Internet azkarra herri.
 2. Mantenu programa gehiago garatu.
 3. Bizikleta elektrikoak.
 4. Eguneroko gaien jarraipena.

Ur Galerak

Galera batzuk konpondu dira. Orain, estankotaren dagoen giltza aldatzeko aurrekontua eskatu dugu, eta udaletxe pareko zanja aprobetxatuz, tubo berria sartu nahi dugu.

Egitekoak

Zuntz Optikoa

Gaia jorratu da, baina oraindik, ez da zuntz optikorik izango herri. Hala ere, bidegorriaren lanak aprobetxatu dira eta trituboa sartu da.

Ur Tasak/Hobariak

Gaia jorratu da, baina administrazioko arazoak direla eta, ezin izan da lanketa aurrera eraman. 2015erako geratu da.

Eskola Berriaren Kokapena (Hezkuntza Sailaren eskutan)

Aurreikuspenak kontuan izanda, ez dago eskola handitzeko beharrik, egoera onean ez dagoelako, ordezkatzeko beharra bakarrik du.

Beraz, ez dago Hezkuntza Saileko lehen-tasun arteen. Itsasondoko eskola berria eraikitze proiektuak planteamendua epe ertain-luzerako da.

Orain arte hitzartuta dituzten eskola aldatetako 2020-2021. urterako bukatzeko aurreikuspena omen dute. Krisia sortu baino lehen, 40 milioi euroko urteko aurrekontua zuten; gaur egun, 14 milioi. Hortaz, egoera ekonomikoa aldatu ezean, 2021. urtera arte Itsasondoko eskola berria ez litzateke lehen-tasun arteen egongo.

Ondoren, berriz ere aztertu beharko litzateke zer egoeratan dagoen, eta lehen-tasun zerrenda egin.

Hala ere, aipatu zuten udalak oruberan bat prest izatea komenigarria dela. Izan ere, ez baitakite noiz egongo den eraikitze aukera (ahal bada, orube proposa).

Hondakinak Tasak/Hobariak

Azken herri batzarrean hondakinen bilketaren kostua ez igotzeko zenbait proposamen azaldu ziren: esate baterako, hondakinak egunez jaso, gabez egin beharrean, organikoak egun gutxigotan jaso... Sasietak defizita dauka (duela urte asko sortutakoa, ez da azken legegintzaldiko kontu bat), eta gure helburua da zabor bilketaren kostua ez igotzea. Aldaketa horiek inplementatzea erabakitzen bada, herri gehiagorekin kordinatu beharko da, eta datorren urtetik aurrera izango da.



Ongizatea

Lan-talde honek ere 2012ko EKINTZA PLANA izan du lanerako tresna; baina, ekintza horiez gain, eguneroko gaiak ere landu dituzte.

Egindakoak

Etxe-Kaleratze Protokoloa

Etxe-kaleratze protokolo bat burutu da, Itsasondon kasurik suertatuz gero eskuartean izateko.

Gizarte Zerbitzuen Aurkezpena

1. Aldizkarian Ikerren elkarrizketa, bere burua aurkeztuz eta herriko egoeraren berri emanez.
2. Herriko zerbitzuen inguruan, 2015eko udal egutegian zerrrenda osatua ipintzea.
3. Hitzaldi irekia. Maiatzaren 9an ordubeteko hitzaldian Ikerrek apirileko lantalerako gidioa aurkeztu zuen.
4. Aurrera begira ere, kanpoko jendearekin hitzaldiak antolatzeke asmoa agertu da, eta interesgarritzat jotzen da.

Langabeen Poltsa

Balorazio kaskarra. Martxan jarri zenetik, bi pertsona baino ez daude izena emanda.

Dokumental Emanaldiak

Balorazio oso positiboa egin denez, jarraitu egingo da emanaldiekin, eta emanaldiak pixka bat aberasteko, tertuliak eta hitzaldiak ere antolatuko dira ikusitako dokumental edo pelikularen inguruan.

Berdinbidean

Egiten ari den lanak ez ditu hasieran jarri ziren helburuak lortu; gazte taldearekin egin nahi ziren saioak ez dira aurrera atera. Beraz, aurrerantzean, eta datorren urteari begira, ondo aztertu beharko dugu lanketa hauekin jarraitu ala ez, aurkezten duten egitaraua ikusiz.

Aurrekontua Lantzea

Aurreko urteko aurrekontuekin jarraitzea aurreikusi da.

Festetan Parte Hartzea

Festetako larunbatean egiten den bokata jana antolatzea hartu du bere gain taldeak. Hemen aterako den dirua, lan taldean bertan erabakiko da zertara bideratu.

Aurten hasi gara ekimenarekin, eta ekimena bera primerana atera bada ere, irabazirik ez da atera. Datuak gorde egin dira, datorren urteko antolaketa hobetzeko.

Egitekoak

Adinekoengana Nola Iritsi

Bakarrik bizi diren adinekoengana nola hurbildu eta gertu egon pentsatu nahi da. Koro medikua ere herrian bakarrik bizi diren adinekoen inguruan hausnarketa egiteko prest azaldu da.

Hala ere, ez da errez ikusten nola iritsi bakarrik bizi diren adinekoengana. Nagusilan elkartearen inguruko informazioa azaldu eta beraiekin harremanetan ere jarri gara. Beste herri batzuetan egin diren esperientzia batzuk ere aipatu dira, Azpeitikoak, adibidez.

Dena dela, lana eskatzen duen gaia dela ikusten da, eta atzeratu egin da.

Boluntario Taldea (Nagusilan)

Nagusilaneokokin harremanetan jarri bagara ere, Itsasondo mailan ez da ezer egin. Lehenik eta behin, bertako beharrak aztertu beharko dira eta boluntarioen papera ere zehaztu.

Denboraren Bankua

Gaia oso interesgarria da, eta aztergai daude beste herrietan egin diren esperientziak. Dena den, gaia konplexua dela ikusiz eta lan asko eskaini beharko zaiola ikusiz, datorren urteko plangintzan sartuko dugu.

Elikagai Bankua

Elikagai bankurako diru-laguntza ateratzeko kanpaina.



Herri Bizitza

Lan-talde honek ere 2012ko EKINTZA PLANA izan du lanerako tresna; baina, ekintza horiez gain, eguneroko gaiak ere landu dituzte.

Egindakoak

Euskara

Sei talde sortu dira eta martxan daude. Talde batzuei jarraipena egiten ari zaie, beraien funtzionamenduan egokitzapen txiki batzuk egin behar baino. Motibazioa bultzatzeko ekintzak egiteko asmoa.

3. ADINA Jubilatutako elkarteak indartu, berpiztu

GAZTEAK Herri Eguna antolatu zuten ekainean, eta herriko jende askok parte hartu zuen. Balorazio ona.

HAURRAK Haurren Herria ekimena martxan.

Hezkuntza

Eskolatik SONGS CUP eta abestiaren grabaketa burutu da, ikasturte amaierarako.

Aurrekontuak

Gastuak eta sarrerak eskatu zaizkio talde bakoitzari, diru-laguntzen poltsa modu parte hartzailean egiteko asmoz (lanketa sakonagoa suposatzen du eta diseinatzen denbora gehiago emango digula aurreikusen da).

Jaiak

Festa batzordeak martxa polita eraman du. Antolaketa jende gehiagok parte hartu du. Koadrila bakoitzetik bi partaide eskatu ditugu, eta denetatik etorri ez badira ere, festetan jende/koadrila gehiago mugitu dela somatu dugu.

Kultur Ekintzak

Kultura agenda bete; urte hasieran jarritako kultura ekitaldi finakoak eta hilabetez hilabete lotzen joan diren ekitaldiak. Egunetgia begiratzuz egingo da errepasoa.

URTARRILA

1. Haurrentzat pelikula

OTSAILA

1. Ijito eguna
2. EHko mus txapelketa
3. Mami postre txapelketa

MARTXOA:

1. Emakumearen eguna
2. Mendi irteera Lizardi-Murumendi
3. Bide heziketa

APIRILA:

1. Txakolindegira irteera.
2. LIBURUTEGIA: separagailu lehiaketa / liburu 1 - piruleta bat

MAIATZA:

1. Pomada ikastaroa
2. Pala txapelketa
3. Urkiko jaiak

EKAINA:

1. Herri eguna
2. Txomin Arana hitzaldia
3. San Juan sua

UZTAILA:

1. Nerabeen aisialdi kanpaina
2. Uda kanpaina
3. Garagardo festa

ABUZTUA:

1. Andra Mari jaiak

IRAILA:

1. Urkiko jaiak
2. Herriko jaiak

URRIA:

1. Pintxo potea
2. BTT zeharkaldia
3. Ipuin kontalaria
4. Kontsumobide hitzaldia

AZAROA:

1. Talo ikastaroa eta festa
2. Tratu txarren aurkako eguna
3. Gaztaina jana
4. Kantu afaria
5. Antzerkia

ABENDUA:

1. Euskararen eguna
2. Txotxongilo tailerra
3. Haurren Herria festa
4. Altxorraren bila - Urkipe eskolatik
5. Ipuin kontalaria - Urkipe eskolan

Egitekoak

Hezkuntza

Matrikula kanpainak indartzeko lanketa. Urte osoan zehar egin beharreko gauza bada ere, zehazki urtarrilean eta maiatzean izaten dira kanpainak.

Gaztelekua

Nerabeen zerbitzuan gurasoek parte hartzea lortu. Aurten, Haurren Herria martxan jarri da, eta nerabe eta gazteen gaia pixkat aparte utzi da; baina, Ainara Gaztelekuko funtzionamenduari buelta bat ematen ari zaio, Haurren Herria proiektuan nola txertatu dabil.

Norabidea

Lan-taldeak hartu beharko lukeen norabideaz hitz egin.

MILA ESKER GUZTIOI!
... eta gogoratu, nahi duenak udaletzeko atek irekita ditu!

Sugeak: animaliak baino ez

Pertsona asko dira sugeen beldur. Hala ere, gehingoari galdetuko bazenio, ez lukete jakingo nondik datorkien sugeekiko ikara hori. Lan zientifikoek diote sugeen beldur izateko joera jaiotzetikoa dela, baina ikara bera gure guraso edota aitona-amonetatik ikasitakoa da. Zergatik ez ditugu sugeak beste animalia taldeen gisara ikusten? Zergatik ez dugu sugeak hiltzeko kezkarik? Nahikoa ezagutzen al ditugu sugeak maitatu edo gutxienez haien beldur ez izateko? Ziurrenik ez.

Iberiar Penintsulan hamahiru suge espezie bizi dira, eta horietatik sei Itsasondo aldean topa daitezke. Horien artean ohitura oso desberdineko animaliak daude. Eskulapio sugeak, adibidez, oso animalia trebea eta gihartsua denez, zuhaitzetan gora eta behera ibiltzeko ohitura dauka. Zure mendi txangoetako batean horrelako batekin topo eginez gero, zeure burua pribilegiatuztat hartu beharko zenuke; izan ere, mehatxatuta dagoen espezie hau ikusteko aukera ez da egunero izaten.

Eta euren ohiturez mintzatuz gero, ba al zenekien suge leunak, euren elikagai iturri nagusi diren sugandilak harrapatzeko horma inguruak miatzen dituztela? Beste batzuk, ordea, uretan edo uretatik gertu bizi dira, espezie hauen elikagai nagusiak anfibioak eta arrainak baitira. Talde honen adibide argia da arrantzaleek ondo ezagutzen duten ibai-sugea edota suge biperakara. Zergatik ote du izen hori? Pozoitsuak diren Viperak edo sugegorriak imitatzeko gaitasuna duelako. Jokaera horrekin bera ere animalia pozoitsu dela uste baitute harrapakariak, eta euren beldur izanda eraso eta hilketari saihesten dute. Horixe bai amarrua! Tamalez, espezieak sarritan gizakia- ren jazarpen zuzena jasaten du, jendeak sugegorriekin nahasten ditu eta.

Sugegorri koitaduak... Itsasondo aldean espezie pozoitsu bakarra dago: sugegorri kantauriarra. Haien ospe txarraren zergatia erabilgarri duten pozoian dago, elikatzeko eta beraz, bizirau-



Oso garrantzitsua da jendeak sugeak ezagutzea, hil ez ditzaten. Hori dela eta, Aranzadin "We are snake friendly" dibulgazio kanpaina egiten gabiltza.

Egilea: Alejandra Miqueluz

teko beharrezko duten pozoian. Sugegorriak gehienbat sagu eta arratoiez elikatzen dira; beraz, ugaztun txiki hauen izurriteak ekiditen laguntzen dute. Harrapakin hauek maneiatzea oso zaila denez, pozoia baliatzen dute eurak paralizatzeko, eta horrela, sugeek min ez hartzea ekiditen dute.

Baina, orduan, pozoitsuak baldin badira, haien beldur izatea normala da, ezta? Argi izan behar dugu Iberiar Penintsulan soilik sugegorriek dutela pozoia, eta gure espezieen kasuan pozoia ahula dela. Penintsulan 130 bat hozkada ematen dira urtero, eta horietatik soilik %1 suertatzen da hilgarria, eta beti ere erre- akzio alergikoa eragiten diolako eraso- a jasan duenari. Pozoitsuak, beraz, ez da hilgarriaren sinonimo. Gure artean badira beste animalia pozoitsu batzuk, jendearen aldetik erantzun berbera jasaten ez dutenak, erleak kasu. Urtero 5-20 pertsona hiltzen dira erleen eztenkadaren ostean, baina pertsonak ez dute makila ateratzen erleak ikusten dituzten aldioro. Hortaz, justifikatuta al dago sugeen beldur izatea eta norbere defentsan sugeak hiltzea? Erantzuna ezezkoa da; izan ere, gure eskualdean edo inguruan ez dago suge espezie oso pozoitsurik. ■



Suge biperakara (*Natrix maura*) arrantzaleek ondo ezagutzen duten suge espeziea da. Hala ere, askotan sugegorriarekin nahasten da.

Egilea: Ander Izagirre



Sugegorri kantauriarra (*Vipera seoanei*) dugu Itsasondoko suge espezie bakarra.

Egilea: Manu Océn

1993ko Kantillapeko ale batean,
zera galdetu zitzaaien herritar batzuei:

Atzerritar bat etorriko balitz gure herria ezagutzera, zer erakutsiko zenioke?


Herritar horietako batzuekin jarri gara harremanetan eta berriro galdera bera egin diegu. Hona hemen erantzunak, orain dela hogeiturotekoak eta oraingoak:



Haizea Arruti

Orain dela 20 urte: frontoia erakutsiko nioke, etxeak, tabernak, udaletxea, ikastolak, herri osoa.

Gaur egun: herria estetrikoki erakutsi beharrean, herri bizitzan murgilduko nuke, herritarren topaguneetara eramán.



Joxemiel Arbilla

Orain dela 20 urte: Arboledako miradorea erakutsiko nioke, bestela zer erakutsi behar diozu ba? Ez dago ezer eta.

Gaur egun: Arboledako miradorea. Umetan ordu asko pasatu genituen bertan, eta oso oroitzapen politak ditut.



Arantxa Mendizabal

Orain dela 20 urte: herri guneari dagokionez, toki guztiak, udaletxea eta etxeak. Herriko inguruetatik, berriz, Murumendiko eta Urkiko bailara; badaikit Itsasak eta Otamendik armarrak dituztela, nahiz eta ez jakin zer esan nahi duten. Bestalde, nekazaritza alorrean eta industrian daukagun apurra erakutsiko nioke.

Gaur egun: herriak aldaketa ugari izan ditu hogei urteotan. Etxe berria, udaletxe berritua, bide gorria...baina baserritarra izanik, lur sail eta eremuak, baserrigintza eta abere mota guztiak erakutsiko nizkioke, mendi buelta eder bat emanaz.



Pili Otegi

Orain dela 20 urte: frontoia eta umeentzako parke berria; kamino berria ere bai, bake handia utzi digu eta.

Gaur egun: 20 urte hauetan herriak aldaketa handia eman du, eta onerako dela uste dut. Argazki zaharrak erakutsiko nituzke, ikusteko garapena nola izan den. Udaletxe berria ere erakutsiko nuke, ez bainuen pentsatzen lortuko zenik. Gauzak bakkarik ez, ordea, jende arteko dinamika ere erakutsi behar da, parte-hartzea oso garrantzitsua da eta. Herrian lana egitea beharrezkoa da.



24. Ibilbidea

Ormaiztegi-Zelaundieta-Ormaiztegi

Herriko kirol gunean hasiko dugu ibilbidea. Estanda ibaia gurutzatu eta parkea inguratuko dugu, hilerriraino iritsi arte.

Beheruntz abiatu eta Renferen geltokia eskuinara utzi ondoren, herriruntz goazela lehenengo bidegurutzean izkinara hartuko dugu, eta Agerre baserrira helduko gara. Hormigoizko pistari jarraitu zati lau batean, eta, herriko baratzeetatik pasatu eta gero, 30 bat metrora aldape gora hasten denean, ezkerretara biratuko dugu, Iraegi iturrira eramango gaituen bidezidorra hartzeko. Bideari jarraituz, Olea baserrira iritsiko gara. Pixka bat lehenago, trenaren tunela gurutzatu eta Arandia baserrira helduko gara. Baserrira ezkerretara utzi eta ezkereruntz maldan gora jarraituko dugu; geroxeago, zati lau bat igaro ondoren, berriro ezkerretara goruntz segituko dugu. Egurrezko listoiez estalitako ubide batzuk gurutzatu, izkinara biratu, beste ubidetxo bat pasa eta goruntz jarraituko dugu, bidegurutze bateraino. Hemen, erdiko bidea hartuko dugu, Urbizuko baserrietara

iristeko. Gune honetatik, ezkerretara Idiazabal eta Aitzgorri eta eskubira Usurbe, Izazpi eta Irimo ikus daitezke. Bideari jarraitu eta malda behera pinudiaren hertz bateraino jaitsita, eskuinara egin eta Zelaundietaraino joango gara. Beheruntz egiten duen erdiko bidea hartuko dugu. Goi tentsioko kableen azpitik pasatu eta ezkerretara hartuko dugu, Arizmendi baserrira iristeko. Baserrira iritsi baino pixka bat lehenago ezkerretara egin eta hormigoizko pista hartuta, Gabiria eta Mutiloko meategiko karril zaharra ikus daiteke. Hormigoizko bideari jarraitu eta beherako bidean hilerriko bidegurutzera iritsiko gara. ■

Iraupena: 2 ordu eta 20 min

Ibilbidea:

- Ormaiztegi-Urbizu auzoa: 60'**
- Urbizu auzoa-Zelaundieta: 15'**
- Zelaundieta-Arizmendi: 45'**
- Arizmendi-Ormaiztegi: 20'**





01

Kirol gunea



02

Parkea



03

Herriko baratzak



04

Iraegi iturria



05

Olea baserria



06

Ugarte baserria



07

Urbizu



08

Urbizu



09

Zelaundieta baserria



Arizmendi baserria

10

Windows eta bere garapena (I)

Pantaila beltz batetik hasi eta milaka leiho ireki eta gezi batekin ibiltzera heldu den sistema eragile erabiliena.

Aurki 35 urte beteko dira ordenagailuetan lehenengo sistema eragile erabiliena asmatu zenetik. 80. hamarkadan jaiotakoak gogoratuko dira MS-DOS eta bere pantaila beltz famatuak. Pantaila beltz horretan, informatikan izango den letrarik famatuena ikusiko da, C:\.

MS-DOS (1980)

Microsoft-en helburua zen informatika mundu guztientzat eskuragarria izatea, enpresa nahiz erabiltzaile pribatua izan.


Aurreneko proiektua MS-DOS izan zen. Erabiltzaileak komando batzuen bidez lortzen zuen programak martxan jartzea edo beraien kudeaketak posible egitea. Hala eta guztiz ere, aurreneko proiektu horrek arrakasta eduki arren, erabilera nahiko konplexua zen ordenagailu bat ukitu ez duen pertsona baten zako. Hori jakinda, Microsoft-en hurrengo erroka izango da mundu guztiak ulertuko duen sistema eragile bat asmatzea. Eta, horren ondorioz, beraien helburu printzipala lortzea: mundu guztiak ordenagailua edukitzea etxean; berdin dio zertarako erabiltzen duten.

WINDOWS 1.0 (1985)

Bost urte geroago, Microsoft-ek aurreneko Windows sistema eragilea atera zuen merkatura. Nahiz eta MS-DOSen estruktura eta dinamika eduki, abantaila handia lortu zuten sistema eragile honekin.

Aldaketa nabarmenena izango da leihoak ireki daitezkeela kasu honetan. Hau da, gaur egungo Windows-en bezala, leiho asko irekitzeko aukera ematen digula. Horri esker, leiho bakoitzean hainbat operazio egiteko aukera ematen zuen.

Hala ere, programak eta eragiketarik komando bitartez egin behar ziren



oraindik. Hau da, nahiz eta leihoak eduki gauza desberdinak egiteko, MS-DOS bezala funtzionatzen zuen.

Gauzarik aipagarriena zen arratoia erabiltzeko aukera eta INICIO/HASI barraren bertsio prehistoriko bat zeuzkala.

WINDOWS 2.0 (1987)

Bi urte geroago, Windows-en bertsio berri bat agertu zen. Funtzionamendu berdina izango du, baina aldaketa batzuekin.

Kasu honetan, leihoak gure gustura jarri daitezke, tamainan eta kokapenean. Gainera, grafikoak askoz hobeak izango dira beste bertsioarekin konparatuz.

WINDOWS 3.0 eta WINDOWS NT (1990)

90. hamarkadara arte ez ditugu "ikono" famatuak ikusiko sistema eragileetan. Justu 1990an, Windows 3.0 atera zen merkatura. Bertsio hau sekulako aldaketa berriekin agertu zen.

Lehenengo aldiz, ikonoak agertzen ziren sistema eragilean, eta arratoiarekin klikatuta leiho batetik bestera pasatzeko aukera ematen zuen. Horretaz aparte, exekutatu behar den programari doble klik eginda arratoiarekin, programa irekitzeko aukera ematen zuen. Horrek esan nahi du jadanik ez dela beharrezkoa komandoak idaztea programak irekitzeko. Aipatu beharra dago baita ere, bertsio honetan "eskritorioa" eta karpetak azalduko direla lehenengoz.

Hala ere, Windows 3.0k oraindik MS-DOSen kontzeptua erabiltzen zuen,

eta kasu berezi batzuetan derrigorrezkoa zen komandoak erabiltzea. Baina, pixkanaka gaur egun ezagutzen ditugun sistema eragiletara gerturatzen hasi ginen.

Windows NTren kasuan, Windows 3.0ren antzekoa da, baina enpresentzat. Izan ere, sistema eragile honi Interneteko lehenengo kontzeptuak aplikatuko zaizkio. Bertsio honi esker, Interneteko kontzeptua apurka-apurka garatuko da, gaur egungo Internetara ezagutu arte.

WINDOWS 95 (1995)

1995an, Windows 95 agertuko da. Orain bai, orain esan dezakegu betidanik ezagutu izan den sistema eragile bat dela.

Kasu honetan, gauzarik aipagarrienak dira grafikoak eta INICIO/HASI barra. Bertatik, modu oso errazean, ordenagailuan gauza guztietara iristeko aukera ematen digu. Leiho sistema askoz malguagoak dira gure nahietarako, eta "eskritorioa" guztiz aldagarria da, gure gustura egon ahal izateko. Orain bai, ordenagailu pertsonala da, gure gustura moldatu daitekeen sistema eragilea delako.

Windows bertsio honekin INTERNET EXPLORER programa dator; bertan, aukera ematen digu telefono puntu batetik Internetera konektatzeko. Hori dena WINDOWS NTri esker lortutako esperientziari esker. Windows 95 ari esker, edonor Internetera sartzeko aukera emango duen lehenengo sistema eragilea izango zen. ■

Ondoko hilobiko tipoa

Azaroaren 28an, Itsasondoko eskolako aterpean, aretoa lepo zela, *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlan ikusteko parada izan genuen.

Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktoreek agerian utzi zuten eszenatoki gainean beraien maisutasuna eta artista sena. Erritmo biziko obra, hizkuntzaren eta euskalkien erabilera bikainarekin, eta nola ez, umorez gainezka. Barre eta algara uneoro, bertaratutako publikoa identifikatuta sentitzen zen seinale. Irteeran, jendea irrifartsu eta une atsegina pasa izanaren sentsazioarekin. Merezti izan du. Ea datorren urtean berri ikusten dugun elkar.



Aralarko bidea

Gure lurraldeak eskaintzen dizkigun aukeren artean, mendian ibiltzeko atseginenen artean koka dezakegu, batik bat hainbat osagarri biltzen baditu: lagunartean gozatzea edo bakardadearen bila abiatzea, zergatik ez; bide berriak urratzea ala ezagunak berriro gogoratzea; gizakiaren arrasto gogorrenak atzean utzi eta garai bateko inguruetara sentimenduz hurbiltzea...

Aralar inguruko biztanleek, premiak aginduta, aspaldi ikasi zuten mendiak eskaintzen zien pagotxa aprobetxatzen. Bizi beharrak aldapa gora bultzatzen zituen, bai, baina gozamina ere beraiekin zuten, nonbait. Nola ulertu bestela milaka urte igaro eta gureganaino iritsi diren oroitarri horiek guztiak eraikitzeko hartu zuten alperrikako lana: jentil-harriak, mairu-baratzak, zutarrak, zistak...

Bizimodua aurrera ateratzeko ahaleginean igotzen hasi ziren haiek, sormena ere gainean zeramaten. Gizakiak izan, kulturadunak ezinbestean, eta Aralar bezalako mendi magikoetan beraien adierazpenak pilatzen joan ziren, bata bestearen alboan edo gainean, gure lurraldeko ondare aberatsena osatzea lortu arte.

Denborak ez omen du barkatzen, eta haiek ere ahaztu ziren edo, hobeto esanda, mitologia bihurtu: jentilak, mairuak, basajaunak... Oraindik ere, nola ez, harri erraldoi horiek mugitzeko zuten gaitasunaren pentsatzeak harridura sortzen digu.

Bai, Aralar inguruak zoriotsuak gara oraindik: bideek zabalik diraute, eszenatokiak prest, eta aprobetxatzen jakitea soilik gure esku dago. Gau eta egun batez gu ere milaka urteko bide zirraragarri horren partaide izan ginen.



Udal egutegirako argazki lehiaketa

Itsasondoko Udalak aurten lehenbiziko aldiz antolatu du 2015eko udal egutegirako argazki lehiaketa. Jasotako materialak herriko txokoen irudiak biltzea zuen helburu, eta saria izan da La Seu De Urgelleko Arbeletxe jatetxean bi lagunentzako afaria eta bertako nekazal etxe batean bi lagunentzako gaua.

Gutzira dozena bat argazki jaso ditugu, eta parte-hartzaile guztiak eskertu eta zoriondu nahi ditugu. Jasotako argazki guztiekin, azaroaren 29an, talo festarekin batera, erakusketa egin da eta bozkak jaso ziren. Bertan, zuentzako gustukoena aukeratu zenuten: "MURUMENDIKO HARRESIA".

Lehiaketako argazki batzuekin eta bildutako herritarren zenbait argazkirekin sortu dugun 2015erako egutegia zuen gustukoa izango delakoan gaude, eta bide batez esan nahi dizuegu egutegian bertan urte osoan zehar izango diren ekintzen berri duzuela, baita lan taldeetako bileren berri ere.



Aitor Garmendia, lehiaketako irabazlea saria jasotzen



Murumendiko harresia, argazki irabazlea

Talo festa

Azaroaren 29, kanpoan hotza eta euria; atsaldea ilun eta animoa goibel baina pilotalekura gerturatzearekin bat usain goxo bat sumatzen da. Gerturatu ta a zer sorpresa, hor daude talogileak jo ta su taloei eragiten. Artirina txorixo, hirugiharre eta txokolategaz lagunduta gauza ederra da. Hori pentsatu genuen bertan taloak dastatzeko parada izan genuen guztiok. Milaesker beste behin talogilei beraien lan eta eskaintzarengatik. Aurten pilotalekuan Goizon Izkierdoren lanak izan ditugu ikusgai. Eskarrik asko zuri ere artista.



Guraso elkarte

Hasi da ikasturtea Itturritxiki Guraso Elkarte! Azaroaren 15ean elkartu ginen, jadanik ohikoa den gaztaina jana egiteko. Batzui jatea egokitu zitzaigun. Beste batzuei, ordea, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko haurren gurasoak hain zuzen ere, eguna antolatzea egokitu zitzaien.

Euririk egin ez zuenez, 16:00etan elkartu ginen 40 bat lagun, mendi bueltatxo bat egiteko.

Gero, 18:00ak aldera, hasi ziren danbolinak astintzen Martin, Markos eta konpainia. **ESKERRAK HAUEK ORAIN-DIK** animatzen zaizkigun lan hau egiteko...Ordurako, herriar gehiago hurbiltzen hasiak ziren.

Guraso Elkartearekin hurrengo zita abenduaren 24an izango da, baserriarrez jantzita herrian zehar kantari ibiltzeko. Hau Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko haurren gurasoek antolatuko dute.

Ordura arte, beraz.

ESKERRIK ASKO ANTOLATZEN LAGUNDU ZENUTEN GUZTIO!!

ITTURRITXIKI GURASO ELKARTEA

Argazki gehiago, gure blogean,

<http://itturritxikige.blogspot.com>



Kantu afaria

Azaroaren 21a zen jarritako data, eta hitzorduari txintxo-txintxo erantzunez, 20:00ak alderako Itsasondoko txokoak alaitzen zebiltzan Kuxuxtu taldeko gure lagunak. Ordurako nabari zen gauez giro paregabea izango zela Arbel-aitz elkarte.

Eta horrelaxe izan zen. Afari bikainari esker indarrak hartu eta eztarria urratu eta kea atera bitartean ez ziren doinuak, abestiak eta dantzak falta izan. Liburuxkako kantu guztiak abestu bitartean ez zuen inork alde egin.

Txori txiki batek esan digu kantu eta kanta gaua luzatu ote zen. Batzuen eztarri eta ahotsek ondo nabari zuten bai biharamunean. Esaera ezagunak dio "kantatzen duen herria ez da inoiz hilko"; hori egia bada, badirudi Itsasondok etorkizun oparua duela. Mila esker eta hurrengora arte, Kuxuxtu eta lagunak!



Talo ikastaroa

Kultura batzordeak bi ikastaro antolatu ditu taloaren inguruan.

TALO IKASTAROA: azaroaren 14an eta 21ean egin ziren, Jubilatuta elkartean. 20 lagunek eman zuten izena, eta bi ostiraletan giro paregabea izan zen. Bertaratu ziren herritarrek talo masa nola egiten zen ikasi zuten, eta ondoren, dastatzeko aukera izan zuten. Gustura agertu ziren parte hartu zuten guztiak.

TALO IKASTAROA FAMILIAN: herriko haur eta gurasoek ere aukera izan zuten taloak egiten ikasteko. 40 haurrek eman zuten izena. Azaroaren 20an, bi talde egin genituen, eta familiek arratsalde ederra pasatu zuten taloak eginez eta dastatuz.



Kutxabank

Azaroaren 7an, Itsasondoko Kultur Etxean, Kutxabank Publikoa ala Pribatua hitzaldia izan zen. Hitzlariak Jone Etxeberria itsasondoaarra (EH Bilduren izenean) eta Julen Errasti (Kutxabank Publikoa plataformaren ordezkari gisa) izan ziren.

Kutxaren historiari eta bilakaerari errepassoa egin zitzaion, eta azken aldian hartu diren erabakien ondorioz Kutxabank Banku Fundazio bihurtzeak herritarrengan euskal industria sare eta ekonomiaren gai honek izan ditzakeen eragin kaltegarriez hitz egin zen. Hitzaldia amaitzean, mokadutxo bat egin bitartean, herritarren kezak eta zalantzak argitzeko parada izan zen.



Pelikula emanaldia

Ongizate lan taldetik atera da aurten martxan jarri den Pelikula Emanaldia ekimena. Bi pelikula eman dira guztira, biak ere Ongizate gaiarekin zerkusia dutenak, eta bietan izan du arrakasta deialdiak. Lehenengoa Arrugas pelikula izan zen eta 35 bat herritar gerturatu ziren, gazte, heldu nahiz adinekoak, denok ikusteko moduko pelikula baitzen. Bigarrena (Las Alas de la Vida) ez zen gutxiago izan: 30 bat lagun gerturatu ziren.

Pelikula amaieran, ikustera joan ziren guztien artean sariak zozkatu ziren. ZORIONAK zortedunei!

Ekimenak izan duen erantzun ona ikusirik, Ongizate lan taldetik pelikula gehiago ematen jarraitzeko asmoa dugula adierazi nahi dizuegu; beraz, adi deialdiei!



Itsasondoko XVII. Mendikleta trabiesa

Larunbat arratsaldean izan zuten hitzordua, eta 119 mendi bizikleta zaleek gozatu ederra hartzeko aukera izan zuten Murumendiko bide, bidezidor eta lokatz guneeetan. Iaz bezala, eguraldia ere lagun izan zuten txirriindulariek.

Arratsaldeko 16:00etan jarrita zegoen hitzordua, baina ordubete lehenago hainbat eta hainbat txirriindulari frontoi inguruan ziren bizikletak hartuta. 16:00etan puntuan irten, eta hortik aurrera, gozarena batzuentzat, sufrimendua besteentzat; baina, orokorrean eta parte-hartzaileen iritziak jasota, denek gozatu zutela esan genezake, bakoitzak bere neurrian, noski.

Herriko plazan amaitu zen trabiesa, eta bertan pintxoak, fruta eta edatekoa ere prest zuten indarberitzeko.

Eguna amaitzeko, probaren babesle eta antolatzaileek jarritako opariak ere zozketatu zituzten partaide guztien artean.

Bukatzeko, nola ez, Ijittu Kirol Elkarteak eskerrik beroenak eman nahi dizkizue antolakuntzan lagundu zenuten guztioi, eta herritarrok, datorren urterako parte hartzera animatu!



Proba bukatu osteko merienda



Herriko bi partaide proba bukatu ostean



Proba hasiera

Pintxo potea

Festak pasa ondoren eta jai giro usaian, esperientzi bikaina izan da aurten pintxo potea. Ostiraleroko pintxo eta eztarria bustitzearen aitzakian herritar asko jeitsi dira kalera. Ostirala egun bikaina da aste-ko kontuak elkarri kontatu eta astebururako planak egiteko. Zer esanik ez pintxo potea uste baina gehiago luzatzen bada... Aurten pintxo potean 4 taberna eta elkar-tek parte hartu dute. Kaxintane eta Nautiko tabernak eta Arbel-aitz eta bizi-nahi elkarteak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu pintxo pote ekimen hau aurrera eraman ahal izateko parte hartu duzuen guztioi. Ea hurrengo urtera begira ostiraletako pintxo potea luza dezakegun. On egin.



Kaxintane taberna



Nautiko taberna



Jubilatu elkarte



Txosna



(errezeta)

(lorezaintza gomendioak)

Limoiondoa

Limoiondoa (Citrus x limon) 6 metroko altuera edukitzeraz iritsi daitekeen fruta-arbola hosto iraunkor txikia da. Bere fruitua limoia da, zapore oso azidoa eta oso usaintsua den fruta jangarria, garrakien taldekoa. Limoiondoak azal leuna eta ebanisterian oso estimatua den zur gogor eta horixka dauka. Botanikoki, limoiondoa Citrus generoarean espezie hibridoia da.

Limoiondoa Asiako da jatorriz, eta seguru asko Txinan eta Indian aspalditik hazten da. Ondoren, Ekialde Hurbilera iritsi zen K.a. 700. urte inguruan, eta musulmanek sakratutzat hartu zuten. Arabiarrek izan ziren, hain zuzen, limoia Europara eraman zutenak.

Ezaugarriak

Adar asko dituen adaburu zabala eratzen du. Kolore berde lustreduneko hosto eliptiko larrukarak dauzka, 5-10 cm-koak. Hostoek mutur zorrotza daukate eta ertz uhinduna edo hortz txikiduna. Loreak petalo lodiz osaturik daude. Zuri kolorekoak eta kanpoaldean arrosak edo morexkak dira. Lorezil ugari dauzka, 20-40 inguru. Loreak modu isolatuan sortzen dira.

Limoiondoaren fruituak Limoiak dira, hazia inguratzen duen ehuna. Limoiak hainbat erabilera dauzka, bai sukaldaritzan bai beste batzuk. Erabilera nagusia zukua ekoiztea da, nahiz eta bere mamia eta azala ere erabiltzen diren. Limoi-uraren %5a azido zitrikoa denez, bere pH-a 2 eta 3 artekoa da eta zapore garratza dauka. Limoi-ura azido merke eta oso eskuragarria da esperimentu zientifikoak egiteko hezkuntzan.



Maixabel Garmendia
Zadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40

Idiazabal gazta mousea, menbrillo dadotxoekin eta intxaur bizkotxoarekin

Lau laguntzat osagaiak

- 250 gr Idiazabal gazta
- 600 gr esnegain likidoa
- 150 gr azukre
- 100 gr menbrillo
- 3 arrautza
- 100gr azukre, bizkotxoarentzat
- 100gr irin, bizkotxoarentzat
- 10 gr legami (royal...)
- 15 intxaur erdi zurituta

Bizkotxoarekin hasiko gara. Arrautza gorringoak eta zurirringoak banatuko ditugu; azken hauei azukrea erantsi eta igo egingo ditugu; ondoren, hurrenez hurren eta poliki-poliki, honako osagaiak gehituko ditugu: gorringoak, legamia, irina eta intxaurrak ondo txikituta.

Gurinez igurtzitako molde batean isuriko dugu presatatu dugun masa, eta labea ondo berotuta dagoenean, 180ºtan edukiko dugu gure bizkotxoak 35 minutuz. Ondoren, xerratan moztuko dugu eta pixka bat xigortuko dugu. Bizkotxoak mousearen lagungarri gisa erabiliko dugu.

Moussa prestatzeko, 300 gr esnegain eta gazta zatitxoak ontzi batean jarriko ditugu berotzen, denbora guztian ondo eraginez eta ahalik eta deseginena geratu dadin zainduz; nahi izanez gero, batidora batekin ere irabiatu dezakegu nahasketa. Hozten utziko dugu. Geratzen den esnegaina azukrearekin batera igo egingo dugu. Honi poliki-poliki Idiazabal gazta krema gehituko diogu; beti ere, hotza egon behar duela gogoratu.

Aurkezteko orduan, ontzi batetan mousea jarriko dugu, gainean menbrillo zatitxoak eta intxaur bizkotxo zatia.

On egin!



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Liburuaren txokoa

Liburutegitik antolatu diren ekintzak:

1. IPUIN KONTALARIA: urriaren 30ean, Odei Agirre ipuin kontalaria izan genuen LIBURUTEGIAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzeko
2. ABENDUAK 4: Eñaut Gorbearen ipuin kontaketa izan zen eskolako aterpean. Eskolak urtero antolatzen duen aste kulturalaren barruan egin zen, euskara eguna ospatzeko.
3. GABONETARAKO TXOTXONGILO tailerra: 4-11 urteko haurrek sormena lantzeko aukera izango dute Gabonetako oporraldian.

Nola topatu liburua?

Batzuetan galdetzen duzue, gure herriko liburutegian libururik ez dagoela eta nola jakin dezakezen zein herritan aurkitu. Horretarako, liburutegian bertan jarri da eman behar diren pausak zeintzuk diren. Informazio gehiago udaletxean bertan ere jaso dezakezue.

E-liburutegia

Liburutegiak ere garai berrietan murgildu behar dira, eta horregatik, laster liburuak deskargatzeko eta tabletetan edo ebooketan irakurtzeko aukera izango dugu bazkide guztiok. Horrela, eduki digitalak mailegatzeko aukera izango da. Laster jasoko duzue honen guztiaren inguruko informazioa. Bien bitartean, helbide honetan ere topatu ditzakezue argibide gehiago:

<http://www.liburuklik.euskadi.net/prestamo-digital>

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Gure egunerokoan, euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzeen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
ESKE ez gara hona hori egitera etorri!	IZAN ERE, ez gara hona hori egitera etorri!
PUES esan bezala...	BA esan bezala...
Bere erantzunak ARRETA DEITU zidan	Bere erantzunak ATENTZIOA EMAN zidan.

Goierri – Urola Garaiko ESI edo

Erakunde Sanitario Integratuari eskaera:

Zumarragako ospitalean ireki behar duten erresonantzia unitate berria, txostenak ele biz egin ditzaten eskaria bidali dio Itsasondoko Udalak, Goierriko zenbait udalekin batera; horrela, euskaldunon hizkuntz esku-bideak bermatuta egon daitezzen.

ABENDUAK 29, astelehena: udal liburutegiak antolatuta ltelezko Titeren tailerra egingo da. 4-11 urteko haurrentzat antolatuta, Zurrunka antzerki taldeko kideek emango dute saioa. Hitzordua 17:00etan izango da, gaztelekuan, alde zurretik izena eman duten haurrentzat.



Oharrak



Itsasondoko udalak ".eus" domeinua badauka: www.itsasondo.eus

Kultur Agenda

URTARRILAK

- 2-3: Gabonetako kanpaina.
- 8: Herri Batzarra, 2014. urtean lan taldeetan egin den lanaren balorazio eta laburpena. 19:00tan udaletxean.
- 10: Tantz Tanta Bilbon.
- 12: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 13: Ongizate lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 14: Herri Bizitza lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 16: Haurren herria bilera.
- 17: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkartearen.
- 31: Euskal Herriko mus txapelketa.

OTSAILAK

- 7: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkartearen.
- 7: Ijito eguna.
- 9: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 10: Ongizate lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 11: Herri Bizitza lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 13: Itsasondoren 400. urteurrena. Postre lehiaketa. Torradak.
- 20: CHO OYU - mendizaleen hitzaldia.
- 21: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkartearen.

MARTXOAK

- 7: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkartearen.
- 8: Emakumearen eguna. Bazkaria elkartearen.
- 9: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 10: Ongizate lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 11: Herri Bizitza lan-taldearen bilera. 19:00etan udaletxean.
- 19: Korrika hasiera festa.
- 29: Korrika amaiera festa.
- 30-31: Aste Santuko kanpaina.

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881 170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrik	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((27 . zk .)) Iratziarila-Martxoia 2015

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

- Ainara Urteaga
- Aranzadi Elkarte
- Axier Arbilla
- Axier Bazaga
- Belen Mendizabal
- Danel Etxeberria
- Ekaitz Arruti
- Enma Arrondo
- Eskolako haurrak
- Erkuden Mendizabal
- Haurreskolako Hezitzaileak
- Iñaki Aizpuru
- Iratxe Ibarra
- Itsasondoko Gazte Taldea
- Iturritxiki Guraso Elkarte
- Jose Luis Aranburu
- Kike Fernandez
- Maite Lasa
- Maixabel Garmendia
- Mertxe Orte
- Mikel Mendizabal
- Rosi Nogueira

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-reoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN: 55-297-2010 2171-5572



GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA MARTXOAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN

Aldizkarian parte hartzea

Norbaitek aldizkarirako proposamenen bat badu, artikuluren bat idatzi nahi badu edo argazki, bidai, ikastaro, afizio edo hobby-ren baten inguruko informazioa badu edo besterik gabe zerbait kontatu nahi badigu jarri dadila gurekin harremanetan. 943 881170 telefonoan edo itsasondo2.0@itsasondo.eus helbidean aurkituko gaituzue.